EVSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

II Legegintza Aldia

2garren Alea

II Legislatura

Número 2

# BILKURA-EGUNKARIA
# DIARIO DE SESIONES

*Pulsando sobre las líneas del índice accederá al texto completo.*

*Aurkibideko lerroetan sakatuz testu osoa eskuratuko duzu.*

**1984garreneko Jorrailaren 11n Egindako Osoko Bilkura**

GASTEIZ

AURKIBIDEA

1 orr. = Bilkurari hasera ematen zaio.

1 orr. = Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren hautaketa.

- Lehendakarigaiaren aurkezpena

1 orr. = . Garaikoetxea Urriza Jaunaren Saioa.

38 orr.= Bilkura eten egiten da.

39 orr.= Bilkurari berriro ekiten zaio.

- Legebiltzar-Taldeen Eskuhartzeak.

**Sesión Plenaria celebrada el 11 de Abril de 1984**

VITORIA-GASTEIZ

INDICE

pág.1 = Se abre la sesión

pág.1 = Elección del Presidente del Gobierno Vasco

- Presentación del candidato a Presidente.

pág.1 = . Interviene el Sr. Garaikoetxea Urriza.

pág.38 = Se suspende la sesión

pág.39 = Se reanuda la sesión

- Intervención de los Grupos Parlamentarios.

| | |
|---|---|
| 39 orr. = . Euskadiko Ezkerra Taldearen izenean Onaindia Jaunak eskuhartzen du, Garaikoetxea Jaunak erantzuten diolarik. | pág.39 = . Interviene, por el Grupo Euskadiko Ezkerra, el Sr. Onaindía, que es contestado por el Sr. Garaikoetxea. |
| 65 orr. = . "Coalición Popular" Taldearen izenean Mayor Jaunak eskuhartzen du, Garaikoetxea Jaunak erantzuten diolarik. | pág.65 = . Interviene, por el Grupo de Coalición Popular, el Sr. Mayor, que es contestado por el Sr. Garaikoetxea. |
| 85 orr. = . Euskal Sozialistak Taldearen izenean Benegas Jaunak eskuhartzen du, Garaikoetxea Jaunak erantzuten diolarik. | pág.85 = . Interviene, por el Grupo Socialistas Vascos, el Sr. Benegas, que es contestado por el Sr. Garaikoetxea. |
| 111 orr. = . Euskal Abertzaleak Taldearen izenean Cuerda Jaunak eskuhartzen du. | pág.111 = . Interviene, por el Grupo Nacionalistas Vascos, el Sr. Cuerda. |
| 117 orr. = Bilkura eten egiten da. | pág.117 = Se suspende la sesión. |
| 118 orr. = Bilkurari berriro ekiten zaio. | pág.118 = Se reanuda la sesión. |
| 118 orr. = - Banan-banako boto-emanketa | pág.118 = - Votación nominal. |
| 118 orr. = Bilkura eten egiten da. | pág.118 = Se suspende la sesión. |


*********

**1984garreneko Jorrailaren 12n Egindako Osoko Bilkura**

GASTEIZ

AURKIBIDEA

119 orr. = Bilkurari berriro ekiten zaio.

119 orr. = Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren hautaketa (jarripena)

119 orr. = - Banan-banako boto-emanketa

. Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Carlos Garaikoetxea izendatzen da.

119 orr. = Bilkurari amaiera ematen zaio.

**Sesión Plenaria celebrada el 12 de Abril de 1984**

VITORIA-GASTEIZ

INDICE

pág.119 = Se reanuda la sesión

pág.119 = Elección del Presidente del Gobierno Vasco (Cont.)

pág.119 = - Votación nominal

= . Es designado Presidente del Gobierno Vasco D. Carlos Garaikoetxea Urriza.

pág.119 = Se levanta la sesión.

Se abre la sesión a las 12 horas, 3 minutos.

Bilkurari eguerdiko 12ak eta 3 minututan ematen zaio hasera.

El Sr. **PRESIDENTE:** Jaun-andreok, parlamentarikideok, gaurko ihardunaldi honi hasiera ematen diogu. Se abre la sesión.

**LEHENDAKARI** jaunak: Señoras y señores parlamentarios, damos apertura a esta sesión de hoy. Bilkurari hasera ematen zaio.

Idazkariak irakur dezala Eusko Abertzaleak Legebiltzar Taldeak egindako hautagaiaren aurkezpena.

Proceda el Secretario a leer la presentación del candidato hecha por el Grupo Nacionalistas Vascos.

El Sr. **SECRETARIO PRIMERO:** "A la Mesa del Parlamento vasco. Al amparo del artículo 128 del vigente Reglamento, el Grupo Parlamentario Nacionalistas Vascos, Eusko Abertzaleak Legebiltzar Taldea, presenta como candidato a Lehendakari a don Carlos Garaikoetxea Urriza. En Vitoria-Gasteiz, a 6 de abril de 1984. Firmado, José Angel Cuerda, portavoz del Grupo Parlamentario Nacionalistas Vascos".

**LEHEN-IDAZKARI** jaunak: "Eusko Legebiltzarreko Mahaiari. Indarrean dagoen Araudiko 128. atalaren babespean, Grupo Nacionalistas Vascos, Eusko Abertzaleak Legebiltzar Taldeak, Carlos Garaikoetxea Urriza jauna aurkezten du Lehendakari izateko hautagai. Gasteizen, 1984.eko apirilak 6. Izenpeturik, Jose Angel Cuerda, Eusko Abertzaleak Legebiltzar Taldeko buru".

El Sr. **PRESIDENTE:** Beraz, Lehendakari hautagaiak eskuhar beza.

**LEHENDAKARI** jaunak: Intervenga, por tanto, el candidato a Lehendakari.

El Sr. **GARAIKOETXEA URRIZA:** Lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, herenegun bete ziren lau urte, Gernikako Biltzar Etxean Lehendakari aukeratua izan nintzenetik. Orduan jaso nuen ohorea haundia izan bazen, gaur eskeintzen zaidana ez da ez ttipiagoa, Euzko Alderdi Jeltzaleak aurkeztuta, berriro ere nere burua Lehendakaritzarako hautagai aurkezten dudan honetan: gogoberriturik bait nator, gure Herriari naizen naizena eskeintzeko, herrikide guztiei eta bakoitzari zerbitzeko, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzatik.

**GARAIKOETXEA URRIZA** jaunak: Señor Presidente, señoras y señores parlamentarios, anteayer se cumplieron cuatro años desde que fui elegido Lehendakari en la Casa de Juntas de Gernika. Si el honor que allí recibí fue grande, no es menor el que hoy se me brinda, en esta ocasión en que, presentado por el Partido Nacionalista Vasco, me presento nuevamente como candidato a la Presidencia: ya que vengo con renovado espíritu para ofrecer a nuestro Pueblo todo cuanto soy, para servir a todos y a cada uno de los ciudadanos desde la Presidencia del Gobierno Vasco.

Ez du gure herriak bere aldirik errazena bizi. Egunotan, Euskalerriaren ordezkari izateko erantzukizuna hartu eta horren agintaritzan buru-belarri murgiltzea ez dira ez eginkizunik erosoenak. Gainontzeko herriek dituzten ohizko arazoez gainera, gure honek beste zenbait problema latz bezain larri bizi bait ditu gaur. Baina, inoiz izatekotan, larrialdietan azaldu behar dugu ea benetakoa ote den herriari zerbitzeko dugun gogoa eta borondatea. Nere aldetik esan dezaizuekedana hau da: Jaurlaritzari eskeini diodan nere bizitzako bitarte honetan, orain lau urte nituen asmoak eta gure herri honen eskabideak asetzeko nuen gogoa sendotu egin zaizkidala.

No vive nuestro pueblo su etapa más fácil. Tomar la responsabilidad de ser representante del Pueblo Vasco, entregarme íntegramente a su mandato en los días que vivimos no son evidentemente los quehaceres (las funciones) más cómodas; ya que, además de los habituales problemas que tiene el resto de los países, el nuestro experimenta hoy en día otros tan graves como arduos. Pero, si alguna vez hemos de mostrar si son auténticos el espíritu y la voluntad que tenemos de servir al pueblo, ha de ser en las crisis. Lo que por mi parte les puedo decir es que en este periodo de mi vida que he dedicado al Gobierno se han fortalecido en mí los deseos y el ansia que tenía hace cuatro años de saciar las reivindicaciones de este nuestro pueblo.

Mendez-mende erakutsi baitu gure herriak bere buruaren jabe izan nahi duela. Gure herri-eskubide horien alde gaude, oso osorik egon ere. Baina gure helburu hoien aldeko borroka gizalegeko jokabidez burutuko dugu. Horretaz gainera, zuhurtziarik haundienaz erabakiko dugu zeintzuk diren gure gizarteko arazorik larrienak, aurrenik arazo horiek konpontzeari ekin diezaiogun. Problemarik haundienak zein diren, bestalde, herrikideen bizitzan duten erasanaren arabera epaituko dugu, eta ez, begiak itxita, setakeria hutsez, herri honen helburuak geure gogaira asmatuz edo ezarriz, horrelako jarrera batek nora garamatzan begiratzeke.

Porque nuestro pueblo ha demostrado siglo tras siglo que quiere ser soberano. Estamos totalmente a favor de nuestros derechos como pueblo. Pero esa lucha por esas nuestras metas la llevaramos a cabo con procedimientos humanos. Además de eso, decidiremos con la mayor prudencia cuáles son los problemas más graves de nuestra sociedad, para que procedamos primeramente a resolver dichos problemas. Por otra parte, juzgaremos cuáles son los mayores problemas segun el peso que tienen en la vida de los ciudadanos, y no, ciegamente, por pura obstinación, inventando o imponiendo a nuestro antojo las metas de este pueblo, sin mirar a dónde nos lleva una postura como ésta.

Beti esan bezala, behin berriro ematen dut aditzera, beraz, gure herri-eskubideak zaintzen eta eskubide horietan aurrera egiten saiatuko naizela. Baina, orobat joko ditut nereak eta bi, Herri honetako edozein herrikidek dituen bestelako irizpide eta jarrera guztiak aintzakotzat hartu eta gizalegez errespetatuak izan daitezen.

Por consiguiente, como siempre lo he dicho, manifiesto una vez más que por lo tanto, me esforzaré en amparar nuestros derechos nacionales y en avanzar en esos derechos. Pero, haré todo lo posible asimismo para que todos los diferentes criterios y posturas de cualquier ciudadano de este País se tomen en cuenta y sean respetados fielmente.

Demokrazian bizi behar dugu elkarrekin, hemengo inork, era bateko ala besteko irizpideak dituela eta, inolako erasorik eta bortxakeriarik jasateko beldurrik gabe. Areago: aurrera egiteko beharrezkoa balitz, elkarrekin ditugun gehiegizko borrokak aldi batez baretzeko eskatuko nieke alderdi politikoei. Izan ere, herri guztiaren onari zor diogun begiruneak eta ekonomiaren saileko krisia eta laneza bezalako arazo haundi eta larriek gizarteko eztabaidak baretu eta denok elkar hartzea eska bait liezagukete.

Tenemos que convivir en democracia, sin ningún miedo a sufrir ataque o violencia alguna porque alguien de aquí tenga criterios de un tipo o de otro. Es más: si fuese necesario para seguir adelante, rogaría a los partidos políticos que atenuaran por un tiempo las excesivas luchas que tenemos entre nosotros. Porque, de hecho, el respeto que debemos al bien de todo el pueblo y los grandes y pesados problemas como la crisis económica y el paro pueden exigirnos que atenuemos las discusiones sociales y que todos nos pongamos de acuerdo.

Legebiltzar hau osatzeko ospatu berriak ditugun hauteskundeetarako, ohi denez, bere programa aurkeztu zuen gure Alderdiak. Hura bere osoan berrirotzeko asmorik ez dut nik. Gaurko ihardunaldi honen zertarakoari begira, Jaurlaritza berrirako ditugun arazo eta helbururik nagusienak aipatuko ditut, Jaurlaritzaren sail bakoitzeko zera denak banan-banan eta erabat aztertu gabe, alegia. Hori dela eta, beraz, gure herrikideen kezkarik nagusienak jasotzen dituzten sailetara mugatuko naiz nere aurkezpenean. Zer lehenago eta ondoren zer aipatzen dudanak ez du adierazten aurrena bigarrena baino garrantzi gehiagokotzat jotzen dudanik. Berez, izaera zeharo ezberdinekoak dira arazo hauek, baino, hori bai, denak daude elkarri estu-estu lotuta.

Nuestro partido, como de costumbre, presentó el programa para las elecciones que acabamos de celebrar para constituir este Parlamento. No es mi intención volver a repetirlo integramente. De cara a la finalidad de la sesión de hoy, mencionaré las cuestiones y metas principales que tenemos para el nuevo Gobierno, sin analizar evidentemente, uno a uno y íntegramente los detalles de cada departamento del Gobierno. Por lo tanto, me limitaré en mi presentación a los departamentos que recogen las principales preocupaciones de nuestros ciudadanos. El orden en la explicación de los asuntos no demuestra que dé más importancia a lo primero que a lo segundo. De hecho, estos asuntos son de naturaleza muy distinta, pero, eso sí, todos están estrechamente ligados entre sí.

Lehendabizi ekonomia eta gizarte-arazoak aztertuko ditut. Ekonomiaren krisiak orokorki, eta horren ondoriorik mingarrienak bereziki, lanik ezak alegia, euskaldun guztiok gauzkate kezkaturik. Ezagunak zaizkigu egoera honen ondorioz hainbat herrikideri eta hainbat etxetara heldu zaien harria eta negarra. Hona hemen den-denok arrapatzen gaituen arazoa, nahiz eta batzuek izan aragi biziagotan jasatzen dutenak. Nere esku izan nuen lehenengo Jaurlaritzak Euskadiren unealdi benetan larrian heldu zion bere lanari. Ekonomiaren sailean jasaten ari ginen gainbeherakada gure ingurukoa baino nabarmenagoa zen. Mila bederatziehun eta larogeian, bataz beste jota, gure herriaren adierazle makroekonomikorik garrantzizkoenek Estatutoek bere osoan hartuta baino joera okerragoak agertzen zizkiguten. Joera horiek bataz beste, hobeak dira gaur egun eta hori, hein haundi batean, gure Herriak hasi berri duen bere eskuko Jaurlaritzari zor zaio. Baina argi dago ekonomia-krisiaren erronkari erantzutea izango dela gure Jaurlaritzaren eginbiderik nagusienetakoa eta, ondorioz, sail horretan oso gogor ekingo diogu lanari. Ez dut, noski, arazo honen alderdi guztiak jorratzeko asmorik, eta, are gutxiago, Jaurlaritzaren banan-banako ekintzak zehatz-mehatz esatekorik. Nolanahi ere, nere honen ondorengo eztabaidak emango digu aukera, zuen galderei erantzunez, osatu beharrekoak osatzeko.

Primeramente analizaré los asuntos económicos y sociales. Las crisis económicas en general, y particularmente sus más graves consecuencias, el paro evidentemente, nos tienen preocupados todos los vascos. Todos conocemos el dolor y el llanto que ha llegado a muchas casas, a muchos ciudadanos como consecuencia de esta situación. He aquí el problema que nos coge a todos, aunque algunos lo sufran más en carne viva cruelmente. El primer Gobierno que tuve en mis manos hizo frente a su labor en una etapa realmente grave de Euskadi. El bajón que estábamos sufriendo en el sector económico era más notable que el de nuestro contexto. En mil novecientos ochenta, por término medio los más importantes factores macroeconómicos de nuestro pueblo nos mostraban tendencias peores que las del Estado tomadas en su conjunto. Esas tendencias son mejores por término medio, hoy en día y eso, en gran medida, se debe al propio Gobierno que nuestro pueblo acaba de estrenar. Pero es evidente que una de las funciones principales de nuestro Gobierno será dar respuesta al reto de la crisis económica y, en consecuencia, trabajaremos duramente en el citado campo. No es mi intención, evidentemente, criticar todos los aspectos de este problema y, menos aún, citar detalladamente todas y cada una de las actuaciones del Gobierno. De todas maneras, el debate siguiente a éste mío nos dará oportunidad para, respondiendo a las preguntas, completar lo que haya de completar.

Demokrazian bizi elkarrekin eta indarkeria gainditu Euskadin. Hau da bigarren gaia. Gure herriak bizi duen gogorkeriazko zurrunbilo beldurgarri honetan jarraitzen badugu, ezin espero dezakegu etorkizun onik, ez guretzat eta ez gure seme-alabentzat. Horrela jarraituz, anai arteko borroka gorrian amiltzera iritsi gintezke euskaldunok. Baina demokrazia bera ere zapuztera etor daiteke, Estatu guztira zabalduz borroka hori.

Convivir en democracia y superar la violencia en Euskadi. Este es el segundo tema. Si continuamos en este remolino de violencia que vive nuestro pueblo, no podemos esperar buen futuro ni para nosotros ni para nuestros hijos. De continuar así, los vascos podríamos llegar a hundirnos en una terrible lucha fratricida. Pero incluso puede llegar a destrozar la democracia, en caso de que dicha lucha se extendiera a todo el Estado.

Eta ez dugu sinistu behar, bortxakeria gure herriak, nahi lezakeen une zoriontsuren batean, bere baitatik atera ahal izango duen tumore gaiztoren bat denik. Bortxakeria, gero eta gehiago indartzen eta zabaltzen den gaitza da, gure euskal gizartea betirako kutsatuta eta inolako sendabiderik gabe utz dezakeen gaitza. Indarkeria nagusitzen denean, pikutara joan ohi dira gizalegea, goiburuak eta printzipio etikoak, jokabide basatien mende jartzen direlarik herriko eta gizarteko harremanak. Egin ditzakegun eginahal denak gutxiegi izango dira, bortxakeriazko zurrunbilo honetatik

Y no debemos creer que la violencia sea un tumor maligno del cual nuestro pueblo pueda desprenderse en algún momento feliz que desee. La violencia es un mal que cada vez se esta fortaleciendo y extendiendo más, un mal que puede dejar a nuestra sociedad vasca contaminada para siempre y sin ninguna posibilidad de terapia. Cuando se impone la violencia, suelen ir a pique la equidad, los ideales y principios éticos y las relaciones públicas y sociales quedan sometidas a comportamientos salvajes. Todos los esfuerzos que podamos hacer para salir de este remolino de

atera gaitezen. Horretan saiatu behar dugu, ez bakarrik gogorkeriaren ondorioak bere haragi bizitan jasaten dituztenen zerrenda behin betirako amaitu dadin, eta bortxakeriazko giroak gure ekonomi bizitzari kalte gehiagorik egin ez diezaion, baizik eta, orobat, gure gizarte hau betirako kutsaturik eta gaiztoturik gera ez dadin.

violencia van a ser demasiado poco. Tenemos que esforzarnos en ello, no solamente para que acabe de una vez para siempre la lista de quienes sufren en sus propias carnes las consecuencias de la violencia, y para que el ambiente de violencia no perjudique más a nuestra vida económica, sino para que, asímismo, no quede contaminada y enferma para siempre esta sociedad nuestra.

Hirugarrenik, gure autogobernua, geure buruaren jabe izatea. Ditugun arazorik larrienen berri ematerakoan, gure buruaren jabe izatearena baino lehenago aipatu dut bortxakeriarena, eta jakinaren gainean aipatu gainera. Honetaz zer iritzi dudan badakizue: arazo biak daudela bata besteari zeharo lotuta, eta ez dugula erabat konpondu ahal izango bata bestea gabe. Baliteke, bai, egunen batez, gure herrian joera politiko radikalen aldeko direnei darien bortxakeria erabat galtzea. Baina, euskaldunok herri izaten jarraitzeko dugun gogoari zor zaion burujabetzaren hauzi-mauzia behar bezala konpontzen ez den bitartean, beti erabili ahal izango da arazo hori jokabide radikalei indar gehiago emateko, eta zaila izango litzateke galeraztea zenbait abertzalek bere eskubideak indarkeriaz eskatzea. Talde harmatuak, gainera, egunetik egunera setatiago eta gogorrago egin ohi dira.

En tercer lugar, nuestro autogobierno, que seamos dueños de nosotros mismos. Al informar sobre los problemas más graves que tenemos, he mencionado el de la violencia y lo he dicho conscientemente. Ya conocen mi opinión al respecto: que los dos problemas están estrechamente unidos, y que no podremos solucionar totalmente uno sin el otro. Puede ser, sí, que algún día se derrumbe totalmente la violencia que procede de los partidarios de la política radical en nuestro pueblo. Pero, mientras no se solucione como debe ser el conflicto del autogobierno que se debe al deseo que los vascos tenemos de seguir siendo pueblo, siempre se podrá utilizar ese problema para fortalecer más las posturas radicales, y sería difícil impedir que algunos vascos exigieran violentamente sus derechos. Además los grupos armados, se vuelven cada día más obstinados y crueles.

Hariari jarraituz, beraz, argi eta garbi esaten dut, orain arte bezala, beti ere Euskadiko gehiengoak egiten dituen eskabideen dina litzatekeen burujabetza lortzen saiatuko naizela. Baina, hala ere, esan dudanez, burujabetzaren arazoa baino lehenago aipatu dut bortxakeriarena, aditzera ematearren gure herri eskabideen aldeko borrokan ez dugula onartuko, ez dugula ontzat emango gogorkeria. Gure herri honetako gehienok gaitzetsi bait dugu bortxakeria, Gernikako Estatutoaren bidea onartu genuenean. Gure buruaren jabe izatea eta gogorkeria uztea aldi berean eskatzen ditugunean, ez gara Madrileko Gobernua estu hartzeko asmoz baldintzak jartzen ari; izan ere, gaur egun, gogorkeria, gure herriko gehienon borondatearen kontrako erasoa baita, Madrileko Gobernuaren kontrakoa bezainbat edo gehiago.

Siguiendo pues, con el tema, digo claramente, como lo he dicho hasta ahora, que me esforzaré en lograr un autogobierno que corresponda a las exigencias de la mayoría de Euskadi. Pero, sin embargo, como lo he dicho, antes que el problema del autogobierno he mencionado el de la violencia, a fin de dar a entender que en la lucha a favor de nuestras exigencias nacionales no aceptaremos, aprobaremos la violencia. Porque la mayoría de este pueblo al aceptar la vía del Estatuto de Gernika, hemos rechazado la violencia. Cuando exigimos al mismo tiempo el autogobierno y el cese de la violencia, no estamos poniendo condiciones con ánimo de poner en un aprieto al Gobiero de Madrid; porque, efectivamente, hoy en día, la violencia es un ataque contra la voluntad de la mayoría de nuestro pueblo, tanto o más que contra el gobierno de Madrid.

Esanaren harira, beraz, gure herrian jasaten dugun indarkeria bere sustrai eta guzti gure artetik ateratzeko lanean jo·ta ke arituko garela adierazi ondoren, erabberean ematen dut aditzera gure autogobernuaren hauzi-mauzia gaur dagoen zulotik ateratzea ezinbestekoa zaigula, horretara-

Siguiendo, pues, con lo dicho, después de comunicarles que trabajaremos duramente en la labor de arrancar de entre nosotros la violencia con todas sus raíces, les comunico igualmente que es imprescindible sacar el problema de nuestro autogobierno del agujero en que está hoy en día,

ko behar diren bideak urratuz.

agotando para ello los medios que sean necesarios.

Hezkuntza eta kulturgintza, laugarren puntua. Gure asmoetan aurrera ala atzera egingo dugun, hein haundi batean, Herri honetako herrikide guztion eta bakoitzaren elkar eta banakako jokabidearen gain dago. Pertsona, edota, orain esan ohi den ez, giza-eragilea edo "elemento humano" ezin ordezkotu dezake Legebiltzar honen edo Jaurlaritzaren asmo onak. Beraz, herriak bere ordezkari eta agintari izateko aukeratu gaituenok geure gain hartu behar dugu hezkuntzaren eta kulturgintzaren sailean politika egokia burutzeko lana, gure gizarteko seme-alaba guztiek izan dezaten aukera, beren buruak zabalago eta sakonago osatzeko. Horrela, eta ez bestela, lortuko dugu geure etorkizunaren jabe izatea eta herriaren eta bakoitzaren etorkizunak jartzen dizkigun arazo etiko eta teknikoei jator bezain egoki erantzutea.

Cuarto punto: educación y actividad cultural. El que nuestras intenciones avancen o retrocedan, depende en gran medida, del comportamiento colectivo e individual de todos y de cada uno de los ciudadanos de este País. La buena intención de este Parlamento o del Gobierno no puede suplantar a la persona, o, como se dice actualmente, al elemento humano. Por lo tanto, los que hemos sido elegidos por el pueblo para ser sus representantes o dirigentes tenemos que tomar bajo nuestra responsabilidad la labor de llevar a cabo una política apropiada en el campo de la educación y de la actividad cultural, para que todos los hijos de nuestra sociedad tengan la oportunidad de formarse con más amplitud y profundidad. De esa manera, y no de otra, lograremos ser dueños de nuestro futuro y responder tan correcta como adecuadamente a los problemas éticos y técnicos que nos plantea el futuro del pueblo y el de cada uno de nosotros.

Kulturazko hartueman ugari eta aberatsen bitartez lortzen dugu gure elkarren eta banakako nortasuna lantzea, geure baitan ditugun hitzegiteko, edergintzarako, ekonomiarako, jolaserako, herrigintzarako eta abarrerako ahalmenak helduaraziz. Garai ezberdinetan jaiotzen garenez, ezinbestekoa izaten da edonon belaunaldien artean kulturazko ezberdintasunak gertatzea. Baina kultur adierazpenen ohizko ugaritasun horri gure herrian beste batzuk erantsi behar dizkiegu: kulturaz eta gizartez jatorri ezberdinetako gizon-emakumeak eta taldeak gaur eta hemen elkarrekin bizi beharretik sortzen diren konponduezinak, alegia. Jatorriz eta gogoz hizkuntza ezberdinetako gizon-emakumeak eta taldeak gaur eta hemen elkarrekin bizi beharretik sortzen diren konponduezinak, alegia. Jatorriz eta gogoz hizkuntza ezberdinetakoak elkarrekin bizi beharra dugu lekukorik argiena. Ez dago, beraz, esan beharrik gure lurralde hau astintzen duten arazoen sakonean daukagula kulturgintzaren hau ere. Gaurko gure ihardunaldi honetan, bada, tarte berezia eskeiniko diogu biharko gure herrikideen hezkuntzari buruzko gure ideiak agertzeari eta, orohar, kulturgintzari dagozkionak aztertzeari.

Logramos a través de abundantes y ricas relaciones culturales trabajar nuestra personalidad colectiva y particular, madurando las posibilidades que tenemos para expresarnos, para el arte, para la economía, para la diversión, para la acción ciudadana, popular, etcétera. Como nacemos en épocas diferentes, es obligado que existan dondequiera diferencias culturales entre distintas generaciones. Pero a esa riqueza habitual de expresiones culturales, debemos añadir otras en nuestro pueblo, es decir, las imposibilidades de mutuo entendimiento que nacen de la necesidad de vivir conjuntamente aquí y ahora grupos de hombres y mujeres de distinta procedencia cultural y social. La prueba más clara la tenemos en que tienen que convivir quienes por procedencia y por voluntad hablan lenguas distintas. No hay, por lo tanto, necesidad de decir que este problema de la cultura lo tenemos, asimismo, en lo más profundo de los problemas que sacuden este nuestro territorio. De modo que, en la sesión que celebramos hoy dedicaremos una parte especial a la exposición de nuestras ideas sobre la educación de nuestros conciudadanos de mañana y, en general, al análisis de las correspondientes a la actividad cultural.

Azkenik, aipatu ditugun gai nagusi horientzako erantzunak sortu beharrak berez eskatzen digu, elkarrekin pakeatzeko eta elkar aditzeko eginahalak jotzea ere: alde batetik, Madrileko agintariekiko harrema-

Por último, la necesidad de crear soluciones para esos principales temas que hemos mencionado nos exige naturalmente dedicar igualmente nuestros esfuerzos la pacificación colectiva y al común entendi-

nei gagozkiela, baita gure euskal gizartearen baitako harremanei gagozkiela ere. Herri honetako sail ezberdinok elkar adi dezagun. Eginahalak jo behar ditugu, Estatuko Gobernuak eta guk elkar hartzeko, industrigintza birmoldatzea eta ekonomia-krisia gainditzea bezain zeregin delikatuak ondo burutu ditzagun. Orobat, gure indarrak bateratzeko eginahalak jo behar ditugu gure herrian ere. Eginahalak jo, kulturgintza bere esanahirik zabalenean eta sakonenean elkarrenganatzeko bide eta eragile gerta dakigun, eta ez zatiketarako. Eginahalak jo eta elkar aditu behar dugu. Euskaditik behin betirako atera dezagun bortxakeria. Eta elkarrizketa garbia bezain ausarta, euskaldunon burujabetzaren gorabehera ahalik azkarren konpon dezagun, Gernikako Estatutoak dioena, behar den adorez, bere osoan egia bihurtuz.

miento: por una parte, por lo que se refiere a las relaciones con los gobernantes de Madrid, pero también por lo que se refiere a las relaciones internas de la sociedad vasca. Escuchémonos entre los diferentes sectores de este País. Tenemos que esforzarnos, para ponernos de acuerdo entre el Gobierno del Estado y nosotros, para que culminemos adecuadamente las delicadas tareas tan importantes como la reconversión industrial y la superación de la crisis económica. Asimismo, también tenemos que esforzarnos en nuestro pueblo para unificar nuestras fuerzas. Esforzarnos, para que la actividad cultural nos resulte en su significado más amplio y profundo una vía y factor de unificación y no de división. Tenemos que esforzarnos y entendernos unos con otros. Expulsemos de una vez para todas de Euskadi la violencia. Y diálogo tan valiente como limpio, convirtiendo en verdad absolutamente, con la firmeza que se requiera, lo que dice el Estatuto de Gernika para que solucionemos lo antes posible el conflicto del autogobierno de los vascos.

Hona hemen, legebiltzarkide jaun andreok, nere ihardunaldi honetan erabiliko ditudan gairik nagusienak. Banan-banan aurkezterakoan, ez diet gai guztiei, noski, tarte berdina eskeiniko. Horrek ez du, baina, esan nahi denbora laburragoa eskeintzen diedan gaiei garrantzi gutxiago ematen diedanik. Izan ere, duten garrantziaz aparte, bai baitira luze-zabalago erabili beharreko gaiak.

He aquí, señoras y señores parlamentarios los principales temas que utilizaré en mi intervención. Al presentarles uno a uno, no les dedicaré evidentemente, el mismo espacio a todos los temas. Eso no quiere decir, sin embargo, que les doy menos importancia a los temas que dedico menos tiempo. Precisamente, porque sí son temas que aparte de la importancia que tienen hay que tratarlos, más ampliamente.

Señoras y señores parlamentarios, voy a dedicar pues una atención prioritaria a ese gran problema que constituye la situación económica, la crisis, el paro que angustia a todos los ciudadanos de este país. El Gobierno de Euskadi ha tenido que iniciar su andadura en el momento más duro de una crisis mundial que se inició hace 10 años y que afecta, ha afectado y seguirá afectando fundamentalmente al sector industrial. Si tenemos en cuenta que el 55 por ciento del Producto Interior Bruto de la Comunidad Autónoma al inicio de la crisis era de origen industrial -frente, por ejemplo, a un 39 por ciento a nivel del Estado-, y más aún la composición sectorial de ese porcentaje, resulta fácil comprender la dificultad de la tarea reservada a un Gobierno vasco desprovisto, por otra parte, de una buena parte de los instrumentos de política económica con que actúa normalmente un Estado.

Legebiltzarkide jaun-andreok, beraz, herri honetako hiritar guztiak dituen ekonomia-egoerak, larrialdiak, langabeziak sortzen duten arazo handi horri lehentasunezko arreta emango diot. Duela 10 urte hasi zen eta batipat industria alorra ukitzen duen, ukitu duen eta ukitzen jarraituko duen mundu mailako larrialdi baten unerik gogorrenean abiatu behar izan du Euskadiko Jaurlaritzak. Larrialdiaren haseran Elkarte Autonomiaduneko Barne Ekoizpenaren Guztizkoaren ehuneko 55 industriatik zetorrela kontutan hartzen badugu -Erresuma mailan, adibidez, ehuneko 39 zirelariketa are gehiago hein horren alorkako osaketa, kontutan hartzen badugu, erraza gertatzen da, bestalde, Erresuma batek agiz erabiltzen dituen ekonomiazko politika-bide askoren falta duen eusko Jaurlaritzari lanaren zailtasuna ulertzea.

El paro, que afecta a tantos conciudadanos vascos, es el gran problema social y el tremendo drama humano que nos angus-

Langabezia, hainbat euskal hiritar ukitzen dituena, gizarte-arazo handia da eta estutzen gaituen, eta, jakina, arrastaka gu-

tia, y, por supuesto, el gran desafío que hemos debido y debemos seguir arrostrando. Mientras exista a nuestro alrededor ese gran contingente de hombres y mujeres desprovistos del derecho elemental a trabajar, carentes incluso de las prestaciones a su situación de desempleo, deberemos sentirnos dominados por el gran azote de la crisis, y no tendremos derecho al optimismo.

Pero, aun desde esta gran preocupación, creo que debo decir que los indicadores económicos señalan que este país ha iniciado una cierta recuperación. Durante los dos últimos años, la tasa de crecimiento del Producto Interior Bruto ha sido positiva, ligeramente positiva, frente a una caída que fue del 11 por ciento en el bienio 78-79. El crecimiento del paro -es un triste consuelo, me dirán ustedes- ha pasado de 30.700 personas en 1981, 28.000 casi en 1980, a 4.000 en 1983. Y, por citar otro indicador, la renta familiar disponible "per cápita", que había caído en los dos primeros años de la pasada Legislatura, ha crecido por encima de la media del Estado, recuperando Vizcaya y Guipúzcoa cinco puestos y Alava cuatro, por cierto, en ese llamado "ranking" provincial.

Yo no puedo hacer falsas promesas, ni suscitar, como decía antes, optimismos, pues la solución al problema del paro, que afecta a 165.000 personas en nuestro país, no se va a lograr a corto plazo, especialmente teniendo en curso un duro proceso de reconversión industrial. Los 33 millones de parados a nivel de la OCDE y los casi dos millones y medio a nivel del Estado dan idea de la magnitud del problema. Sin embargo, es de justicia destacar que la aparición de un sector público vasco potente, gracias al Concierto Económico, está dejándose notar sensiblemente, como antes apuntaba.

En 1984 contamos con un Presupuesto consolidado de 131.000 millones y unas instituciones también consolidadas. Falta todavía una parte importante del desarrollo estatutario y, por consiguiente, los recursos presupuestarios correspondientes. Mi deseo sería presentar en esta Cámara en 1985 un Presupuesto de más de 225.000 millones de pesetas, con numerosos programas de gran significación social y económica y con un objetivo prioritario: insisto, la lucha contra el paro. Y eso está a nuestro alcance, por uno u otro camino, si llegamos a acuerdos en algunas transferencias en materia de Insalud, Obras Hidráulicas, Universidades, Investigación, Turismo, etcéte-

rekin eraman behar izan dugun eta behar dugun erronka handia. Gure inguruan lan egiteko funtsezko eskubidea ez daukaten gizon eta emakume pilo hori, beren langabeziazko egoerarekiko laguntzarik ere ez daukatelarik, dagoen bitartean, langabeziaren astindu handi horren menpe senti beharko ditugu geure buruak eta ez dugu optimismorako eskubiderik izango.

Baina, kezka handi honetatik ere, herri honek nolabaiteko berreskuraketari hasera eman diola adierazten dutela esan behar dudalakoan nago. Azken bi urteotan, Barne Ekoizpenaren Guztizkoaren hazkuntza taula baikorra izan da, baikor samarra, 78-79 bi urteetan ehuneko 11-ko beherakadaren aurrean. Langabeziaren hazkuntza -tristea da, esango didazue zuek- 1981.eko 30.700 pertsonatakoa -1980.ean ia 28.000 ziren-, 1983.ean 4.000 gehitu da. Eta, beste markatzaile bat aipatzearren, familiako "per capita" zerga eskuragarria, joan den Legegintza aldiko lehenengo bi urteetan eroria zena, Erresumako batazbesteko baino gehiago hazi da, izan ere "ranking" delako horretan Bizkaia eta Gipuzkoak bost postu berreskuratu bait dituzte eta Arabak lau.

Nik ez dut lehen nioenez, promesa faltsurik egiterik, ez eta optimismorik zuztatzerik, zeren langabeziaren arazoarekiko irtenbidea, gure herrian 165.000 pertsona ukitzen dituena, ez bait da epe laburrera lortuko, bereziki industria-birrantolaketaren bilakaera gogorra eskuartean izanik. OCDE mailan dauden 33 miloi eta Erresuma mailan dauden ia bi miloi ta erdik langabetuk ematen dute arazoaren handiaren ideia. Halabaina, bidezko da Ekonomia Kontzertuari esker euskal herri-alor indartsua agertzen ari dela, pixkanaka nabarmentzen ari dela, nabari araztea, lehen nioenez.

1984.ean 131.000 miloeko finkaturiko diruegitamua daukagu eta halaber finkaturiko erakunde batzu. Oraindik Estatutoegiterapenaren zati garrantzitsu bat falta da eta diruegitamu-eskuarte egokiak, beraz. 1984.ean Biltzarre honetan gizarte eta ekonomiazko esangura handiko egitarau askorekin eta lehentasunezko xedez, langabeziaren aurkako borroka egiteko xedez, alegia, 225.000 miloe peseta baino gehiagoko diruegitamua aurkeztea litzateke, nire gogoa. Eta hori gure esku dago, bide batetik edo bestetik, batipat akordio horietara iristeko politika borondatearen menpe dauden Insalud, Hidraulikazko Lanak, Unibertsitateak, Ikerkuntza, Turismoa, etabarretango

ra, que dependen fundamentalmente de la voluntad política de llegar a tales acuerdos.

Me gustaría poder apoyar esa acción con las competencias en materia de empleo, que también nos faltan, o con las imprescindibles de un crédito oficial disponible. Me gustaría que la acción del Gobierno, y el control del Parlamento sobre el mismo, se optimizasen gracias a un mejor conocimiento de la realidad económica y social que podríamos lograr si se nos transfiriese el aparato estadístico. Con esto, señorías, no trato de condicionarlo todo al desarrollo estatutario. Quiero simplemente decir, con claridad y sin petulancia, que aquí existe un sector público que ha demostrado eficacia, que ha contribuido a mejorar la situación y que podría hacerlo más rápido y mejor si el Estatuto que todos aprobamos se completara de una vez por todas.

En todo caso, el sector público vasco tiene que estar a la altura de las circunstancias y de lo que este país nos puede y debe exigir. Sin ánimo de ser exhaustivo, yo centraría mi atención en cuatro puntos. Primero, una Administración que ya venimos configurando, con los objetivos de que sea eficiente, moderna, tecnificada, austera, con una elevada tasa de ahorro público, abierta a todos los ciudadanos y a la que se siga accediendo en base a criterios de mérito, capacidad y publicidad. Segundo, Administración común vasca y Administraciones territoriales vascas que deben actuar coordinada y ordenadamente, dentro de sus respectivas competencias, de acuerdo con lo que prevén los textos legislativos emanados de esta Cámara y las prioridades que la misma apruebe. Tercero, un sector público que sirva de incentivador e impulse y promueva las iniciativas de la sociedad vasca, sin competir esterilizantemente con ellas ni ahogarlas, por supuesto. Cuarto, un sector público que planifique y prepare el futuro de nuestro país y contribuya a aumentar sus potencialidades en todos los órdenes, con base a una inteligente política educativa y formativa.

Pienso que ese proceso de recuperación, desde la perspectiva del sector público, puede iniciarse mediante la persecución de cuatro objetivos importantes, interrelacionados entre sí. En primer lugar deberemos conseguir, claro está, que la actividad económica vasca experimente un impulso importante a través de actuaciones como las siguientes: en primer lugar, el reforzamiento del consumo y de la inversión públi-

zenbait eskuraketetan zenbait akordiotara iristen bagara.

Ekintza horri, halaber falta zaizkigun lanbide mailako aginteez edo mailegu ofizial eskuragarriaren nahitaezkoez lagundu ahal izatea gustatuko litzaidake. Jaurlaritzaren ekintza, eta Legebiltzarraren horrekiko zaingoa, estadistika-aparailua eskuratuz gero lortu genezakeen ekonomia eta gizarte-egoeraren ezaguera hobeari esker ahalik eta onenak litezen gustatuko litzaidake. Honekin, jaun-andreok, ez naiz oro estatutoaren egiterapenaren menpe jarri nahi. Zera esan nahi dut soilki, argi eta errepikatu gabe, hots, hemen eginkortasuna agertu duen, egoera hobetzeari lagundu dion eta orok onartu genuen Estatutoa behin betirako osotuko balitz, bizkorrago eta hobeto egin lezakeen herri-alorra dagoela.

Nolanahi ere, euskal herri-alorrak zertzeladen eta herri honek hertsiki eskatzen ahal digun eta eskatu behar digunaren arabera egon behar du. Dena ikutzeko asmorik gabe, ene arreta lau puntutan jarriko nuke: Lehendabizi, jadanik eratzen ari garen Administrazioa, honako xede hauekin, alegia, eraginkorra, gaurkotua, teknikabideduna, eratsua, herri-dirua erapenezko taula handia, hiritar orori irekia eta bertara merezimendu, gaitasun eta iragarkibidez jotzen jarrai dadinekoa. Bigarrenik, euskal agizko Administrazioa eta euskal lurralde Administrazioak, hauek Biltzarre horri darizkion legegintzazko idazkiek eta beronek onar ditzan lehentasunek aintzin oharteman dezatenari jarraiki, dagozkien aginteen barruan elkarturik eta taiuz jardun behar bait dute. Hirugarrenik, eragiteko balio dezan eta euskal gizartearen arioak, haiekin antzutasunez lehiatu barik eta haiek ito gabe noski, bultzatu eta suztatu ditzan euskal herri-alorra. Laugarrenik, gure herriaren etorkizuna egitamutu eta prestatu dezan eta hezkuntza eta irakaskuntza politika burutsuan oinarrituz, bere ahalmenak maila guztietan gehitzeari lagundu diezaion herri-alorra.

Berreskuratze bilakaera hau, herri alorraren aldetik begiratuta, elkarrekin loturiko lau xede garrantzitsu helburutzat hartuz has daitekeela pentsatzen dut. Lehendabizi lortu beharko duguna, argi dago honako hauek bezalako ekintzen bitartez euskal ekonomiagintzak aurrerakada garrantzitsua izatea: lehenik, euskal Barne Ekoizpenaren Guztizkoaren urteroko hazkuntzari gehitze bat eransteko bide eman dezaten ekoizpena

ca que permitan añadir anualmente, al crecimiento del Producto Interior Bruto vasco, un punto adicional. Yo espero que el nivel de gasto público que aprobará esta Cámara en esta Legislatura, si alcanzamos rápidamente ese techo o nos aproximamos rápidamente a ese techo estatutario, pueda aproximarse a los 900.000 millones de pesetas corrientes -antes de traspasos a diputaciones-, sin modificación de la presión fiscal nominal y sin comprometer el proceso de financiación de las actividades del sector privado. Este importantísimo volumen de recursos deberá ser adecuadamente coordinado, para potenciar su efecto con el de las diputaciones y ayuntamientos, dentro de la distribución de competencias que legalmente correspondan a cada una de las instituciones.

En segundo lugar, el apoyo al sector privado vasco. Este es un país que tradicionalmente ha carecido, en la práctica, de un sector público propio y que recibía ciertamente poca atención del estatal. El esfuerzo histórico de creación de riqueza ha sido, por tanto, fundamentalmente privado. Ello quiere decir que la corrección de una grave carencia que hemos padecido, la falta de peso de nuestro sector público, no debe impedir que el sector privado siga ocupando el puesto clave que le corresponde, como cualquiera tiene que admitir, en la recuperación del país.

Para ello recibirá, como hasta ahora, un importante apoyo público en tres planos: subvencional, financiero y -por qué no decirlo también- de aliento moral. A este apoyo debe corresponder una actitud de responsabilidad, colaboración y esfuerzo solidario en la resolución de los problemas de este país, que son los de cada uno de sus habitantes y, por tanto, de las empresas que les dan empleo. Al sector privado le vamos a ofrecer también la necesaria participación, junto a los sindicatos representativos, en el proceso de planificación de la actividad económica pública, abierta a todas sugerencias, que sea receptiva y motivadora. Y, paralelamente, le vamos a pedir una actitud imprescindible de responsabilidad social idéntica a la que deben ofrecer los interlocutores sindicales.

Con todo ello, y si se consolida el proceso de recuperación de la economía internacional y se inicia el de la española, yo creo que es factible alcanzar en el próximo cuatrienio crecimientos del Producto Interior Bruto que oscilen entre un 2,5 y un 4 por ciento anual en términos reales.

eta herri diruezarketa indartzea. Muga hori berehala lortzen badugu edota estatutoaren muga horretara berehala hurbiltzen bagara, legegintza aldi honetan Biltzarre honek onartuko duen herri xahupenezko maila, agizko 900.000 miloetara -diputazioei eskuraketak egin aurretik- hurbildu ahal izango zaiolakoan nago, izenezko zergasakaren aldaketarik gabe eta norbanako alorreko ekintzen dirubide bilakaera arriskuan jartzeke. Berebiziko garrantzia duen eskuarte pilo hau egokiro elkartu beharko da, bere ondorioa diputazioetako eta udaletxeetakoekin potenziatzearren, erakunde bakoitzari legez egoki dakizkion agintebanaketaren barruan.

Bigarrenik, euskal norbanako alorrarekiko laguntza. Herri hau, haztura mailan, berezko norbanako alorrik ukan ez duen eta benetan erresumakoaren arreta gutxi jasotzen zuen herria da. Aberastasuna sortzezko ahalegin historikoa, beraz, norbanakoa izan da batipat. Horrek esan nahi du jasan dugun eza larria, gure herri alorraren pisurik eza zuzentzeak ez duela norbanako alorrak, herri honen bere onera etortzean, edozeinek onartu behar duenez, dagokion tokia betetzen jarraitzea eragotzi behar.

Hartarako, orain arte bezala, herri laguntza garrantzitsua jasoko du hiri mailatan: dirulaguntzazkoa, dirubidezkoa eta -hau ere zergatik esateke utzi- gogo adorea. Herri honetako arazoen ebazpenean laguntza honekin batera erantzukizunezko, elkarlaguntzazko eta elkartasun-ahaleginezko jokabideak joan behar du, arazo hauek bertako biztanle bakoitzarenak eta, jakina, lanbide ematen dieten enpresenak bait dira. Norbanako alorrari hartzaile eta zio emale izan dadin, idarokipen orori irekitako herri ekonomiagintzaren egitamuketan, sindikatu ordezkariekin batera, beharrezko parte hartzea ere emango diogu. Eta, modu berean, sindikal elkarrizketalariek eskeini behar dutena bezalako nahitaezko gizarte erantzukizunezko jokaera eskatuko diogu.

Guzti horrekin, eta nazioarteko ekonomiaren berreskuraketa bilakaera finkatzen bada eta espainiarrarena hasten bada, ene ustez, benetako hainbatekoz ehuneko 2,5 eta 4ren arteko gora beherako. Barne Ekoizpenaren Guztizkoaren hazkuntzatara iritsi daiteke datozen lau urteetan.

Con base en ese incremento posible de la actividad económica deberemos crear y mantener, naturalmente, empleo en riesgo de perderse mediante acciones de carácter coyuntural, de carácter propiamente presupuestario, y naturalmente otras de naturaleza estructural. Las actuaciones de carácter coyuntural se apoyarán en los programas específicos de creación de empleo contenidos en el Presupuesto, en el impulso a las actividades de promoción y en el apoyo a los sectores y empresas en crisis. Las medidas de carácter estructural requerirán un amplio consenso de los sectores sociales y económicos.

Será necesario contribuir a mejorar la redistribución de la renta y de la riqueza a través de una doble vía. En primer lugar, la mejora en la realización del gasto público contenido en el Presupuesto que, con la incorporación de las competencias en materia de Seguridad Social, destinará más de un 50 por ciento de los recursos a actividades de carácter social, con un componente redistributivo de renta ciertamente importante. En segundo lugar, la del ingreso público mediante la adecuada instrumentación de los mecanismos de coordinación, colaboración y armonización fiscal que prevé el artículo 41 del Estatuto, lo que permitirá un aumento, o debe permitir un aumento, de la recaudación sin modificación de la presión fiscal, al atacarse el problema del fraude, intolerable siempre, pero más si cabe en una situación de crisis económica y de paro elevado como la que padecemos.

En definitiva, trataremos de mejorar la calidad de vida de todos los vascos, y específicamente de los colectivos más necesitados. Este es un país con apreciable nivel de renta, pero todavía con un bajo nivel de bienestar o, lo que es lo mismo, de calidad de vida. Y si nuestro objetivo fundamental, como acabo de reiterar, es tratar de facilitar mecanimos de creación de empleo para aquellos que se encuentran en paro, no podemos olvidar el conjunto de la población vasca, que tiene derecho a disfrutar de una vida mejor, aunque paralelamente le pidamos un esfuerzo de solidaridad con los que menos tienen.

No voy a extenderme en la explicación de las actuaciones sectoriales, que proseguirán las iniciadas en la anterior Legislatura y que prestarán especial atención al sector agrícola y al sector pesquero, en situación ciertamente crítica.

Ekonomiagintzaren ahalikako hazkuntza honetan oinarrituz, izaerazko egoera, berez izaerazko diruegitamu eta, jakina, izaerazko egitura ekintzen bitartez galtzeko arriskuz. Izaerazko egoera ekintzak Diruegitamuan jasotzen diren lanbideak sortzezko egitarauetan, suztatze-ekintzekiko bultzadan eta larrialdiango alor eta enpresekiko laguntzan oinarrituko dira. Izaerazko egitura-neurriek gizarte eta ekonomia alorren hitzarmen zabala eskatzen dute.

Errenta eta aberastasunaren birbanaketa hobetzeari lagundu beharko zaio, eta hau bide bikoitzetik. Lehenik, Diruegitamuan jasoriko herri xahupenaren egiterapena hobetzea, hark, aginteak Gizarte Segurantza alorrean sartzearekin, eskuarteen ehuneko 50 baino gehiago gizarte izaerazko ekintzetarako jarriko bait ditu, errenta birbanatzezko hainbesteko benetan garrantzitsuz. Bigarrenik, Estatutoko 41. atalak aintzin ohartematen duen elkarkidetze, laguntza eta zerga-orekatzezko eginbideen gauzatze egokiaren bitartezko herri diruezarketarena, honek bilketaren gehitzeari bide emango diolarik, edo eman behar diolarik, zergasaka aldatzeke, zerga ebasketaren arazoari erasotzerakoan, beti jasanezina bait da, baina are gehiago jasaten dugun bezalako ekonomia larrialdiko eta langabezia handiko egoera batetan bada.

Azken batetan, euskaldun ororen eta, bereziki, behar gehien duten taldeen bizimodu maila hobetzen saiatuko gara. Herri honek errenta maila preziagarria dauka, bainan oraindik ongunde maila edo, gauza bera dena, bizimodu maila apalarekin. Eta, errepikatu berri dudan lez, gure funtsezko xedea langabezian daudenentzat lanbideak sortzezko eginbideak errazten saiatzea baldin bada, ezin dugu bizimodu hobea gozatzeko eskubidea duen euskal herria orohar ahantzi, aldi berean gutxien dutenekiko elkartasunezko ahalegina eska diezaiogun arren.

Ez naiz luzatuko alorkako ekintzak adierazten, hauek aurreko legegintza aldian hasitakoei jarraitu eta benetan egoera larrian dauden nekazaritza eta arrantza alorrei arreta berezia eskainiko bait diete.

Un mínimo análisis de prospectiva indica con claridad que la superación económica de Euskadi no va a ser un camino fácil. Entre los desafíos que deberemos arrostrar para alcanzar un futuro mejor, destacaría seis que hoy considero absolutamente obligado mencionar: reconversión, innovación, inversión, competitividad, normalización de nuestras relaciones sociales y confianza.

Reconversión, en su más amplio sentido y referida al conjunto de la estructura económica vasca. Tenemos que encauzar el problema de la reconversión industrial, pero no debemos olvidar la reconversión energética, la pesquera o la potenciación del sector servicios y de la agricultura, si queremos equilibrar nuestra estructura económica. Este proceso tiene naturalmente dos planos que se complementan: el individual, es decir el que día a día y sin alharacas realiza todo empresario innovador para sacar adelante su empresa, y, naturalmente, la reconversión que requiere una participación de los poderes públicos y que cobra especial actualidad en el sector industrial.

En estos próximos cuatro años van a tener lugar dos procesos importantes para la Universidad: la transferencia en materia universitaria y la institucionalización de la Universidad en el nuevo marco de la LRU. Manteniendo nuestras discrepancias con la citada ley, por entender que sobrepasa en su contenido lo que debería ser una ley de bases, el proceso de institucionalización corresponde fundamentalmente a la propia Universidad, y a los poderes públicos proporcionar los medios para el buen desenvolvimiento de sus funciones. Será misión prioritaria de mi Gobierno dotar a la Universidad y a la enseñanza superior del país de los medios necesarios para poder emprender con éxito una nueva etapa de despegue y progresiva cualificación investigadora y docente.

No es misión de los poderes públicos detallar de forma minuciosa un programa de actuación académica universitaria. Quien os habla siente un profundo respeto por la institución universitaria y por su autonomía, no solamente por imperativo legal, sino por la profunda convicción personal de que sólo desde una real autonomía, tanto académica como de gestión, podrán afrontarse con posibilidad de éxito los - complejos problemas de la Universidad actual.

Y es precisamente en esta proclamación de autonomía y dotación de medios suficientes donde encuentra todo su sentido la posterior exigencia de responsabilidad, tanto en la gestión económica como de los resultados académicos e investigadores, que los poderes públicos pueden y deben formular a la Universidad. De todos modos, serán los poderes públicos los que garantizarán la participación de la sociedad en la dirección de la Universidad. Y es mi intención presentar inmediatamente la ley de Creación del Consejo Social, en la que este Parlamento decidirá sobre la forma concreta de articular la presencia de representantes de la sociedad en el gobierno de la Universidad, especialmente en sus aspectos económico-presupuestarios.

Toda Universidad debe responder a dos premisas: una de carácter particular y otra de proyección universal. Una Universidad está localizada en su entorno socio-económico concreto, del que proceden los alumnos y buena parte de su profesorado, entorno que aporta sus propios problemas sociales e incluso lingüísticos. Y, en aparente contradicción con esto, una Universidad debe estar integrada en la comunidad científica internacional, que es la única que

Datozen lau urteotan Unibertsitatearentzat garrantzitsubi bi bilakaera gertatuko dira: unibertsitate alorreko aginte-eskuraketa eta Unibertsitatea LRUren eremu berrian erakundetzea. Aipatu legeari buruzko gure aurkako eritziei eutsiz, horren edukinak oinarri-lege batena gainditu egiten duela pentsatuz, erakundetze-bilakaera Unibertsitateari berari dagokio batipat, eta horren funtzioak egokiro aurrera eramateko eskuarteak ematea herri-aginteei. Nire Jaurlaritzak lehentasunezkotzat joko du ondorengo egitekoa, hots, Unibertsitateari eta herriaren goi mailako irakaskuntzari, ikerkuntza eta irakaskuntza mailan gero eta gehiago trebatze eta hedatzezko aldi berria arrakastaz hasi ahal izateko beharrezko dituen eskuarteak ematea, alegia.

Ez dagokie herri-aginteei, unibertsitate mailako jokabide akademikorako egitaraua zehatz-mehatz ematea. Mintzo natzaizuen honek, unibertsital erakunde eta honen autonomiarekiko errespeto handia sentitzen du, ez legezko aginduz bakarrik, baita, nik neuk benetan sinesten bait dut, nahiz akademi nahiz eraentzazko benetako autonomiatik baino ezin izango zaiela aurre egin, arrakasta edukitzeko aukeraz, egungo Unibertsitatearen arazo korapilotsuei.

Eta autonomiaren aldarrikapen honetan eta behar adinako eskuarteen hornidura honetan aurkitzen du izateko bere arrazoina, gerora herri-aginteek Unibertsitateari eskatu ahal eta behar dioten, nahiz eraentza ekonomikoan nahiz akademi eta ikerkuntza-ondorioen erantzukizuna hertsiki eskatzeak. Nolanahi ere, herri-aginteek bermatuko diote gizarteari beronek Unibertsitatearen zuzendaritzan parte hartzea. Eta Gizarte-Kontseilua sortzeko legea berehala aurkezteko asmoa dut, bertan Legebiltzar honek gizartearen ordezkariak Unibertsitatearen eraentzan egotea antolatzeko modu zehatza erabakiko bait du, bereziki bere ekonomia eta diruegitamuari buruzkoetan.

Unibertsitate orok bi premisari erantzun behar dio: bata izaera partikularrekoa eta bestea hedapen unibertsalekoa. Unibertsitatea bere inguru sozio-ekonomikoan dago kokaturik, bertatik ikasleak eta irakasle hainbateko handia bait dator, inguru honek bere gizarte-arazoak baita hizkuntzalaritzakoak ere ematen dituelarik. Eta, aurrekoaren aurkako dirudielarik ere, Unibertsitateak nazioarteko zientzi elkartean sarturik egon behar du, berau bait da bertan

puede establecer por consenso pautas, baremos y medidas para valorar la calidad de la enseñanza e investigación que en ella se practique. Esta es la institución que deseamos: una Universidad enraizada en la sociedad vasca, que contribuya a afirmar nuestra identidad y que lo haga asumiendo la condición internacional de la ciencia y de la investigación.

No voy a repetir aquí de nuevo mi preocupación por la investigación y la innovación tecnológica. Me he referido antes especialmente a esta última, como respuesta necesaria al gran desafío de un mundo cambiante. Quiero añadir, de todas formas también, que el preguntarse sobre el origen de la naturaleza, las relaciones humanas, el pasado o el futuro, y tantos otros problemas, forma parte esencial de la cultura de nuestro tiempo, por lo que considero un deber del poder público crear las condiciones para que la investigación básica pueda progresar en cualquier campo en el que se ofrezcan proyectos de calidad.

Principios de solidaridad, tolerancia, pluralismo y esfuerzo integrador presidirán nuestra política de fomento y desarrollo de otras manifestaciones culturales o de conservación de la obra cultural heredada. El impulso a lo nuevo no debe significar el olvido de lo pasado. Las bellas artes no deben excluir a la ciencia, ni el euskera a la técnica, como tampoco el fomento de nuestra música popular debe traducirse en desconocimiento de la música de otros pueblos o de la llamada "gran música". Se trata de dimensioes que, lejos de excluirse mutuamente, resultan complementarias y por ello deben ser simultánemente promovidas.

En esta línea de promoción institucional de las diversas manifestaciones culturales y de su intercambio, propongo combinar dos tipos de acciones complementarias, tal como hemos venido haciendo en nuestro anterior mandato. De un lado, seguiremos dotando de los recursos necesarios a las instituciones que hemos creado para responder a necesidades culturales colectivas de nuestra comunidad, que difícilmente podían ser satisfechas por otros medios de carácter más particular. Me estoy refiriendo a la Orquesta Sinfónica, al HABE, a este tipo de obras.

De otro lado, seguiremos ampliando el apoyo institucional a tantos y tan variados proyectos e iniciativas que nuestro pueblo viene desarrollando en los campos de la creación artística y literaria, la conserva-

egin dadin irakaskuntza eta ikerkuntzaren maila balioztatzeko bideak, taulak eta neurriak kontsentsubidez erabaki ditzakeen bakarra. Honelakoa da nahi dugun erakundea; hots, euskal gizartean sustraitutako Unibertsitatea, gure nortasuna baieztatzen lagundu dezana, eta hau, alegia, zientziaren eta ikerkuntzaren nazioarteko baldintza leporatuz egin dezana.

Ez dut berriro adieraziko hemen ikerkuntzagatik eta berrikuntza teknologikoagatik dudan kezka. Lehen azken hau aipatu dut bereziki, mundu aldakorraren erronka nagusiari erantzuteko premiazko denez. Nolanahi ere, hau erantsi nahi dut, hots, naturaren jatorriari, giza-harremanei, iragan edo etorkizunari eta beste hainbat arazori buruz galdegitea bizi garen garaiko kulturaren funtsezko atala dela, hala nola, nere ustez, honako hau herri-agintaritzaren betebeharra den oinarrizko ikerkuntzak, alegia, projetu onak eskaini ditzan edozein alorretan, aurrera egin ahal izateko baldintzak sortzea.

Elkartasun, bathi, aniztasun eta bateratze ahalegin hastarauak izango dira, beste hainbat kultur adierazpen edo asabaz harturiko kultur lana bultzatzeko eta egiteratzeko gure politikaren zuzendari. Berriari bultzatzeak ez du iragana ahaztearen baliokide izan behar. Arte ederrek ez dute zientzia baztertu behar, ezta euskerak teknika ere, orobat gure musikaren bultzatzeak beste herritako musika edo delako "gran música" ez ezagutzearen baliokide izaterik ez duenez. Neurri hauek, batak bestea baztertu baino areago, elkarren osagarri dira eta, hori dela eta, batera suztatu beharrekoak.

Kultur adierazpen ezberdinak eta bere harremanak erakundebidez suztatzeko bide honetatik, bi ekintza osagarri mota taxutzea aurreratzen dut, aurreko gure agintaldian egin dugunez. Alde batetik, sortu ditugun erakundeei beharrezko eskuarteak emateari jarraituko diogu, gure elkarteko bateango kulturalbeharrei erantzutearren, hauek nekez bete bait litezke beste hainbat bide bereziagoren bitartez. Orkesta Sinfonikoa, HABE eta horrelakoez ari naiz.

Bestalde, artegintza eta literaturazko sorpen arloan, ondarearen zaintze arloan gure herriaren ekarketak baino areago, gizadi osoarenak gero eta gehiago ezagutzeko bide eman diezagun kultur hedapenaren

ción del patrimonio, la difusión cultural que nos permita conocer cada vez mejor las aportaciones no sólo de nuestro pueblo, sino de toda la humanidad, y en otros campos que, por supuesto, sería prolijo detallar. Y aprovecho la oportunidad, señor Presidente, para decirle que voy a terminar en breve.

No se puede hablar de los principios de solidaridad, pluralidad y esfuerzo integrador sin crear las condiciones de vida normal que necesita el euskera, practicando una política de "laisser faire" que suponga su muerte segura o manteniendo de hecho la mera yuxtaposición de una lengua dominante y otra condenada a convertirse en reliquia de museo.

La política de promoción del euskera supone una aportación efectiva al pluralismo real de la sociedad vasca, una muestra de solidaridad con el elemento débil y amenazado y un ejercicio de la tolerancia en el terreno concreto de la complejidad real de una sociedad. La promoción del euskera y de la cultura euskaldun, además de una aspiración vital de los vascos, debe ser entendida como una aportación a la pluralidad y riqueza de la cultura universal, como un esfuerzo de proyectar el futuro como renovación de la propia historia, no como simple prolongación estática del pasado, desde el convencimiento de que no hay futuro sin memoria.

El esfuerzo de revitalización del euskera se centrará en tres frentes: el frente de la normativa y modernización del lenguaje, el de la normalización de su uso en la enseñanza reglada, en la enseñanza de adultos, en los medios de comunicación y en la propia Administración, y el frente de las investigaciones, tanto básicas como aplicadas, en torno al proceso social que en definitiva es y representa el euskera.

Oponerse a las medidas que permitan al euskera ámbitos de subsistencia imprescindibles, o escandalizarse ante los errores que puedan ser anécdotas en este intento, como a veces sucede, no puede ser precisamente una revelación de un sentido de universalidad; acusarnos de practicar un reduccionismo vasco por hacer esto más bien podría revelar, y yo lo digo con cordialidad -pero creo que debo decirlo sin complejos-, podría revelar centralismo uniformista y particularismo antivasco. Somos totalmente contrarios a reduccionismos y a particularismos desmedidos. Pretendemos simplemente la creación de condiciones que permitan el ejercicio de un bilingüismo

arloan, baita zehatz-mehatz ematea astunegi gertatuko litzatekeen, beste hainbat arlotan noski, gure herriak egiteratzen dituen hainbeste eta hain ugari diren egitasmo eta arioei erakundeetiko laguntza zabaltzen segituko dugu. Eta bidenabar, Lehendakari jauna, berehala bukatuko dudala adierazten dizut.

Ez dago elkartasun, aniztasun eta bateratze ahaleginaren hastarauez aritzerik, euskarak behar dituen agizko bizitza baldintzak sortu gabe, bere derrigorrezko heriotzea ekar dezan "laisser faire" delako politika eginez edo egitez hizkuntza menderatzailea eta museorako hondar bilakatzera kondenaturiko bestea segidan jartze soilari eutsiz.

Euskara suztatzezko politika zera da, alegia, euskal gizartearen benetako aniztasunari egiazko ekardina, elementu ahul eta zemaipekoarekiko elkartasun azalpena eta gizartearen benetako korapilotasunaren arlo zehatzean jasamenez jardutea. Euskararen eta euskal kulturaren suztapena, euskaldunen oso garrantzitsua izateaz gainera, honela ulertu behar da, hots, kultura unibertsalaren aniztasun eta aberastasunari elkarkina, etorkizuna historia bera berritzeko ahalegina, hau da, historia iraganaren luzapen estatiko soiltzat hartu gabe, oroipenik gabeko etorkizunik ez dagoelako uste osoz.

Euskara berrindartzeko ahalegina hiru arlotan mugatuko da: hizkuntza arautze eta gaurkotzearen arloa, araupetutako irakaskuntzan, helduen irakaskuntzan, komunikabideetan eta Administraritzan berean horren erabilera arauzkotzearen arloa eta azken baten euskara den eta adierazten duen nahiz oinarrizko nahiz baliagarri diren euskararen gizarte-bilakaerari buruzko ikerkuntzen arloa.

Euskarari behar-beharrezko bizimodu-esparruak eman diezazkion neurrien aurka jartzeak, edota, zenbaitetan gertatzen denez, saiatze honetan gertaldi huts izan daitezkeen akatsen aurrean sumintzeak ez du, hain zuzen ere, unibertsaltasun adieraren azalpen izaterik; hau egiteagatik guk euskal murrizkeria egiten dugunaz salatzeak, are gehiago, eta nik adiskidetasunez esaten dut -baina lotsarik gabe esan behar dudala uste dut- erdirakoitasun bateratzailea eta euskaldunen aurkako berezitasuna azal lezake. Ez dugu inondik inora onartzen ez murrizkeriarik ez berezitasun neurrigaberik. Gure asmoa besterik gabe Euskadin benetako elebitasunaren jardunari bide

real en Euskadi.

Señor Presidente, señoras y señores parlamentarios, la magnitud de los problemas pendientes y la necesidad de propiciar soluciones urgentes, en buena medida obstaculizadas por -hay que confesarlo- el colapso de las relaciones en que nos hemos movido con el Gobierno del Estado, a mí me hizo proclamar, en plena campaña electoral, cuando la confrontación partidista era más agria, la necesidad de un esfuerzo renovado de diálogo y negociación entre el Gobierno del Estado y el Gobierno vasco. Entiendo que esta negociación debe comprender simultáneamente, cuando menos, esos tres grandes problemas a que me he referido especialmente a lo largo de este discurso: autogobierno, violencia y fórmulas que faciliten la salida de la crisis económica en Euskadi, afrontando con responsabilidad y eficacia operaciones trascendentales como la reconversión industrial.

A partir de los principios antes señalados al hablar del desarrollo estatutario, deseo manifestar mi deseo de facilitar una distensión de las relaciones Madrid-Vitoria, y mi voluntad decidida de contribuir a la consolidación del sistema democrático y a la eliminación de innecesarios focos de tensión que perturben dicho proceso. Seguimos, al fin y al cabo, estoy convencido de ello, en la misma línea que nos impulsó, como decía antes, a suscribir el Estatuto hace cinco años.

Reitero una vez más nuestra voluntad de desarrollar responsabilidades reales, auténticas, en la lucha contra la violencia, y muy en particular nuestro deseo de desarrollar una Policía vasca que ocupe con dignidad el espacio que le corresponde en la defensa de la seguridad de la población y que coordine su labor con la que habrá de corresponder a la Policía del Estado, en el ámbito de las competencias que le reserva el Estatuto. En esta importantísima competencia, tanto o más que en cualquier otra, es imprescindible clarificar de forma inequívoca el verdadero sentido y alcance de las disposiciones estatutarias, definir ese cuadro final de responsabilidades al que antes me he referido. No importa tanto, una vez más, el calendario como la constatación clara, sin reservas, del tipo de Policía que aquí va a existir al cabo del desarrollo estatutario y las fórmulas transitorias que garanticen un control real de las actuaciones policiales coordinadas en tal periodo transitorio.

eman diezaioten baldintzak sortzea da.

Lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andereok, erabaki gabeko arazoen handiak eta premiazko irtenbideak eman beharrak, hauek, neurri handi batetan, Estatuko Jaurlaritzarekin mogitu gareneko harremanen ahuleziagatik -aitortu beharra dago- alderdien lehiaketa saminena zenean Estatuko Jaurlaritzaren eta eusko Jaurlaritzaren artean elkarrizketatzeko eta ituntzeko ahalegina berriaren beharra aldarrikatu erazi egin zidan. Itunketa honek gutxienez mintzaldi honetan zehar bereziki aipatu ditudan hiru arazo nagusi hauek aldi berean jaso behar dituelakoan nago, hau da: burujabetasuna, indarkeria eta Euskadin kinka ekonomikotik ateratzea erraz dezaten moduak, industria-birrantolaketa bezain eragiketa garrantzitsuei arduraz eta eginkortasunez aurre eginez.

Lehen estatutoaren aurrerabideaz hitz egiterakoan adierazitako hastarauetatik abiatuta, Madrile eta Gasteizen arteko harremanen biguntzea errazteko nire eta orobat demokrazia-sistema finkatzen eta aipatu bidea galerazi dezaten alperriko tentsioguneak suntsitzen laguntzeko nire gogo betea adierazi nahi dut. Azken batetan, eta honetaz jabeturik nago, duela bost urte, lehen nioenez, Estatutoa izenpetzera bultzatu gintuen ildo beretik dihardugu.

Berriro errepikatzen dut, indarkeriaren aurkako borrokan, benetako, egiazko erantzukizunak egiteratzeko gure gogoa, eta oso bereziki herriaren segurantzaren aldezpenean dagokion lekua duintasunez bete dezan eta bere lana, Estatuko Poliziak, Estatutoak ematen dizkion ahalmenen esparruan, egin beharko duenarekin koordina dezan euskal Ertzaintza egiteratzeko gure nahia. Berebiziko garrantzia duen ahalmen honetan, beste edozeinetan bezainbeste edo gehiago, ezinbestekoa da estatutoaren erabakien benetako adiera eta helmena dudarik gabe argitzea, lehen aipatu dudan erantzukizunen azken taula mugatzea. Egutegiak baino garrantzi handiagoa du, berriz diot, argiro eta salbuespenik gabe erasota uzteak, Estatutoa garatu eta gero hemen izango den Ertzaintza mota eta aldibaterako epe horretan polizia-jokabide elkartuen benetako zaintzea berma dezaten aldibaterako moduak.

Manifiesto mi voluntad de asumir con espíritu cooperador y máxima responsabilidad ese enorme reto de la reconversión industrial. Es cierto, como he dicho antes, que el Gobierno del Estado mantiene los instrumentos esenciales -crédito oficial, fondo de empleo, de garantía salarial, Seguridad Social...- que, en definitiva, son los que otorgan la competencia real y efectiva para abordar tamaña empresa. Por eso precisamente resultan inexactas las manifestaciones que se han llegado a hacer, al afirmar que el Gobierno vasco tiene la competencia en las pequeñas y medias industrias en el ámbito vasco, y el Gobierno central en las grandes empresas y sectores de incidencia estatal. Esto no es así. La competencia real y, por consiguiente, la responsabilidad de ayudar en el proceso de reconversión y reindustrialización, está en función de esos instrumentos de apoyo que, hoy por hoy, insisto, no están en nuestras manos.

Pero ello no obsta para que anuncie desde ahora un gran esfuerzo para aunar los limitados recursos, los marginales recursos que pueda allegar este Gobierno, y su autoridad moral en el país, con el objetivo de afrontar conjuntamente este gran desafío que angustia a tantos ciudadanos vascos. En otras palabras, estamos dispuestos a compartir decisiones, recursos, aunque sean marginales, y costes políticos para afrontar este gran reto del momento.

Señoras y señores parlamentarios, éste es el sincero espíritu que anima a este candidato cuando se dispone a iniciar un nuevo mandato al frente del Gobierno vasco. Puedo asegurarles que deseo también fervientemente alcanzar el mayor grado de colaboración y entendimiento posible con todas las fuerzas políticas vascas representativas de nuestro país. En este discurso he propuesto la potenciación de plataformas parlamentarias (Comisión de Derechos Humanos, de estudio y seguimiento del desarrollo estatutario) para tratar conjuntamente algunos de los problemas más candentes de nuestro país. Anuncio igualmente mi propósito de intentar el máximo consenso posible en todos los proyectos legislativos de particular relevancia para nuestra Comunidad, a cuyo efecto dispondré un sistema de consultas previas al puro trámite parlamentario, que garanticen tal intento.

¡Ojala este Parlamento sea testigo o, mejor, actor principal de esta gran operación de entendimietno entre todos los vascos que, al menos para este candidato,

Industria-birrantolaketaren erronka hori lankidetasun gogoz eta erantzukizun handienez niregan hartzeko gogoa adierazten dut. Egia da, lehen, esan dudanez, Estatuko Jaurlaritzak dauzkala funtsezko tresnak -mailegu ofiziala, lanbide-baltza, lansarien berme-baltza, Gizarte-Segurantza...- hauek, azken batetan, ahalmen eraginkor eta benetakoak ematen bait dizkio honenbesteko eginkizunari ekiteko. Horregatik ez dira zuzenak egin izan diren honelako baieztapenak, alegia, eusko Jaurlaritzak euskal esparruan enpresa txiki eta erdi mailako enpresetan duela agintea, eta estatuko Jaurlaritzak, aldiz, enpresa handietan eta estatu mailako eragineko alorretan. Hau ez da horrela. Benetako ahalmena eta, beraz, berrantolaketa eta berrindustrialtze bidean laguntzeko erantzukizuna gaur egun, berriz diot, gure esku ez dauden laguntzeko tresna horien baitan dago.

Baina hori ez da eragozpen jadanik Jaurlaritza honek izan ditzakeen eskuarte mugatuak, bazter-eskuarteak orobatzeko ahalegin handia, eta hainbat euskal hiritar larritzen duen erronka nagusiari aurre egiteko herrian duen aginte morala aldarrika dezadan.

Legebiltzarkide jaun-andereok, benetako gogo honek eragiten dio hautagai honi, eusko Jarularitzaren gidaritzan agintaldi berria hasterakoan. Gure herriaren politika-indar ordezkari guztiekin ahalik eta lankidetasun eta elkar aditze handiena orobat biziki lortu nahi dudala ziurta diezazuket. Mintzaldi honetan legebiltzar-plataformak bultzatzea proposatu dut, Estatutoaren aurrerabidearen aztertze eta jarraiarena gure herriko arazo larrienetariko zenbait batera arakatzeko. Halaber gure Elkartearentzat garrantzi bereziko legegintza-egitasmo orotan ahalik eta irizkidetasunik handiena lortzen saiatzeko dudan asmoa aldarrikatzen dut, horretarako, legebiltzar-bideketa hutsaren aurretik egiteko aholkularitza-sistema bat ezarriko bait dut.

Ailitz Legebiltzar hau euskaldun guztien arteko irizkidetasun-ekintza honen lekuko edo, are hobekiago, eragile nagusi, hori bait da, hautagai honentzat behintzat,

constituye la gran ilusión de la próxima Legislatura! Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE:** Eskerrik asko.

Legebiltzarkideok, ihardunaldi honi etenaldi bat egingo diogu arratsaldeko laurak arte.

Se suspende la sesión hasta las cuatro en punto de esta tarde.

Pido a los señores portavoces tengan la amabilidad de pasar por mi despacho un minuto.

Eran las 13 horas, 45 minutos.

datorren Legegintzaldiko amets handia! Eskerrik asko.

**LEHENDAKARI** jaunak: Muchas gracias.

Compañeros parlamentarios, se suspende la sesión hasta las cuatro en punto de esta tarde.

Ihardunaldi honi etenaldi bat egingo diogu arratsaldeko laurak arte.

Minutu batez ene langelatik pasa zaitezten eskatzen dizuet taldeburu jaunoi.

Ordubiak laurden gutxi ziren.

Se reanuda la sesión a las 16 horas, 8 minutos.

El Sr. **PRESIDENTE:** Ihardunaldia berrasten da. Se reanuda la sesión. Une honetan legebiltzar taldeen eskuhartzea izango da. Lehendabizi, Euskadiko Ezkerrako Legebiltzar Taldea.

Mario Onaindia.

El Sr. **ONAINDIA NACHIONDO:** Eusko Legebiltzar-Lehendakariaren baimendurarekin, jakina, ene lehen hitzak legislatura berri honetan euskaraz, hau da, gure hizkuntza nazionalean izan behar dute, hau da, aintzinako "lingua navarrorum"ean.

Eta sortu da garaia, eta izan behar dute ene harridura mostratzeko, ze neretzat harrigarria da ordubete t'erdi baino gehiago gure Lehendakari ohi jaunari eta Lehendakarigai jaunari diskurso batetan entzuten egon eta "Nafarroa" hitza ez esatea. Eta neretzat hori ez da izan kasualitatez. Neretzat, gaur goizean presentatu den programaren akatsik haundiena nolabait ez da akats, esan dezagun, konkretoa edo akats politikoa, baizik nolabait zer ulertzen den Euskal Herrian gobernatzeaz. Euskal Herrian edo edozein herritan, baina batez ere Euskal Herrian, hau da, hain kinka gogor, latz, sakona duen gizartean; ez bakarrik kinka ekonomikoa, baita ere kinka politikoa, elkar bizitzakoa, kulturala, etabar, etabar, etabar.

Eta nik uste dut gaur egunean, gaur goizean presentatu diguten programaren filosofian nolabait ulertzen da hemen gobernatzea administratzea dela, hobeki ala txartoago hori gero ikusiko dugu, baina nolabait administratzea, hau da, Gobernuak hona legeak ekartzea, hemen aztertzea eta onartzea, eta gero funtzionariek konplitu eta konpliaraztea, eta, jakina, hiritarrek kunplitzea. Guretzat, ordea, horrela ezin dira konpondu Euskal Herrian ditugun arazoak, hau da, biolentzia, kinka ekonomikoa eta autonomia prozedura. Ze nolabait kinka horiek, eta, jakina, kinka horiek dira gure arazorik latzenak, ez dira konponduko lege egokiekin bakarrik. Beharrezkoa da gobernatzeaz beste gauza bat ulertzea; hau da, herria gidatzea eta, jakina, norabait gidatzea eta orduan Euskal Herria nora eraman nahi dugun argi eta garbi jakitea. Eta guretzat hori da arazorik haundiena, zeren, adibidez, nolabait nik uste dut denbora

Bilkura 4ak eta 8 minututan berrasten da.

**LEHENDAKARI** jaunak: Se reanuda la sesión. Ihardunaldia berrasten da. En estos momentos procedemos a la intervención de los grupos parlamentarios. En primer lugar, el Grupo Parlamentario de Euskadiko Ezkerra.

Mario Onaindia.

**ONAINDIA NATXIONDO** jaunak: Con el permiso del Presidente del Parlamento, mis primeras palabras en esta nueva legislatura han de ser evidentemente en euskara, es decir, en nuestro idioma nacional, en la antigua "lingua navarrorum".

Ya ha surgido el tema, y mis palabras han de ser para mostrar mi extrañeza, ya que es extraño que, después de haber estado más de hora y media oyendo en un discurso a nuestro ex Lehendakari y candidato a Lehendakari, no haya mencionado el término "Nafarroa". Y para mí eso no ha sido por casualidad. Para mí el mayor fallo, de alguna manera, del programa que se ha presentado esta mañana no es, un fallo concreto o un fallo político, sino que está de alguna manera, en qué se entiende por gobernar en Euskal Herria. En Euskal Herria o en cualquier país, pero sobre todo en Euskal Herria, es decir, en esta sociedad con una crisis tan dura, ardua, pesada y profunda; no sólo crisis económica, sino también crisis política, de convivencia, cultural, etcétera, etcétera, etcétera.

Y creo que hoy en día, en la filosofía del programa que esta mañana nos han presentado se entiende de alguna manera que gobernar es administrar, mejor o peor -eso lo veremos luego-, pero de alguna manera administrar, es decir, que el Gobierno traiga leyes aquí, se analicen y aprueben aquí, y que luego los funcionarios las cumplan y hagan cumplir y que, por supuesto, los ciudadanos las cumplan. Para nosotros, en cambio, así no se pueden arreglar los problemas que tenemos en Euskal Herria, es decir, la violencia, la crisis económica y el proceso autonómico. Porque de alguna manera esas crisis, y, evidentemente, esas crisis son nuestros más arduos problemas, no se van a resolver sólo con leyes adecuadas. Es necesario entender otra cosa por gobernar; es decir, guiar al pueblo y, claro está, guiarlo hacia algún sitio y, por lo tanto, saber claramente a dónde queremos llevar a Euskal Herria. Y ése es para

galtzea dela puntuz puntu kinka ekonomikoari buruz aurkeztu dizkiguten punto horiek eta proposamen horiek hemen aztertzea. Guretzat askoz ere inportanteagoa da filosofia batetaz diskutitzea.

nosotros el principal y el mayor problema, porque, por ejemplo, creo que es perder el tiempo el analizar aquí punto por punto esos puntos y propuestas que se nos han presentado aquí sobre la crisis económica. Para nosotros es mucho más importante discutir sobre una filosofía.

Gaur presentatu diguten programan, orain dela lau urte presentatu ziguten programan bezala, onartzen da Euskal Herriko kinka ez dela kinka erabakilea, ez dela kinka sakona, baizik eta ba nolabait gauza kointuraladela dela, eta hemendik urte batzuetara helduko direla berriz ere behi argalak. Biblian bezala, zazpi urte behi gizenak eta beste zazpi urte behi argalak, eta orduan, guk deus egiteke, etorriko direla berriz ere behi argalak, eta iniziatiba pribatua gai izango dela egoera honetatik ateratzeko.

En el programa que hoy nos han presentado, al igual que en el programa que nos presentaron hace cuatro años, se acepta que la crisis de Euskal Herria no es una crisis decisoria, que no es una crisis profunda, sino que de alguna manera es algo coyuntural, y que de aquí a unos años volverán a llegar las vacas flacas. Como en la Biblia, siete años de vacas gordas y otros siete de vacas flacas, y entonces, sin que nosotros hagamos nada, volverán a venir las vacas flacas y la iniciativa privada será capaz de sacarnos de esa situación.

Guk uste dugu onargarriak eta txalogarriak direla Euskal Gobernuak hartu dituen zenbait erabaki ekonomi mailan. Eta batez ere onartu beharra daukagu gaurko filosofia orain dela lau urtekoa baino argiagoa eta, guk esango genuke, herrikoiagoa dela. Orain planifikazioa onartzen da, eta delako Kontseilu Sozioekonomiko bat onartzen da. Baina guk ez dugu ulertzen zer den Kontseilu Sozioekonomiko hori, eta guretzat horrek izan behar luke Euskal Herriko talde sozial guztiak, batez ere entrepresariak eta langileak elkartzen diren lekua, baina ez, ez alokairua mugatzea erabakitzeko, baizik eta hor debatitzeko eta hor hemendik mende batetara edo belaunaldi batetara nolako ekonomi mota nahi dugun erabakitzeko.

Creemos que ciertas decisiones que el Gobierno vasco ha tomado a nivel económico son aceptables y aplaudibles. Y tenemos que aceptar ante todo que la filosofía de hoy es más clara que la de hace cuatro años, más popular, diríamos nosotros. Ahora se acepta la planificación, y se acepta el llamado Consejo Socio-económico. Pero nosotros no entendemos qué es ese Consejo Socio-económico, y para nosotros debería ser el lugar de reunión de todos los grupos sociales del País Vasco, sobre todo de los empresarios y trabajadores, pero no para fijar los límites del sueldo, sino para debatir y decidir ahí qué tipo de economía queremos para de aquí a un siglo o a una generación.

Eta gero, hemen hitz egin da nolabait sektore publiko batetaz. Baina sektore publiko hori ez da sektore industriala, baizik sektore finantziaduna da. Guk uste dugu beharrezkoa dela baita ere sektore publiko industrial bat desarroilatzea, baina desarroilo hori izan dadila, nolabait Kontseilu Sozioekonomiko horretan erabakitzen den neurriaren bidetik eta ildotik.

Y además, se ha hablado aquí de un sector público. Pero ese sector público no es un sector industrial, sino un sector financiero. Nosotros creemos que es necesario también desarrollar un sector público industrial, pero que ese desarrollo siga la vía o el camino de las medidas que se tomen en ese Consejo Socioeconómico.

Eta beste aldetik, prozedura autonomikoari buruz beste arazoa. Gu ados gaude Lehendakariak esaten duen gauzekin; ados egon gara azken lau urteotan; nola ez egon orain. Hor geldipen bat egon da, gelditze bat egon da, argi dago, azken bi urteotan batez ere, eta guk uste dugu autonomia sakratua dela. Sakratua da Euskal Herrian erreferendum bat egon delako, eta Euskal Herriak bere burua gobernatzeko onartu duen lege organiko bat da. Beraz, hori denok errespetatu behar dugu, eta hori

Por otra parte, otro asunto relativo al proceso autonómico. Nosotros estamos de acuerdo con las cosas que dice el Lehendakari; hemos estado de acuerdo en los últimos cuatro años; cómo no vamos a estar ahora. Ahí ha habido un parón, claro está, sobre todo en los dos últimos años, y nosotros creemos que la economía es sagrada. Es sagrada, porque en Euskal Herria ha habido un referéndum, y es una ley orgánica que Euskal Herria ha aceptado para gobernarse a sí mismo. Por lo tanto, la

baino gehiago nahi dugunok errespetatzen badugu, hori baino guttiago nahi dutenek ere errespetatu egin behar dute. Baina guretzat Autonomia Estatutoa ez da soilik, ez da bakarrik Madrilekin arazoak konpontzeko gauza bat, baizik Autonomia Estatutoa Euskal Herria egiteko, Euskal Herria nazio bat bihurtzeko tresna bat da guretzat. Eta Euskal Herria, jakina, nazio bat da. Eta politika mailan hori argi dago. Hau da, Euskal Herriak bere burua gobernatzeko borondatea maiz eta askotan mostratu izan du azken mende hauetan. Nazio bat gara. Baina soziologian, Euskal gizartean, linguistika aldetik, kultura aldetik Euskal Herria oraindik nazio bat, nazionalitate bat, egiazko nazionalitate bat izateko aurrerapen bat egin behar dugu. Eta guretzat kritikarik latzena alde horretatik da. Euskal Herria edo batez ere Gobernu hau oso gogorra izan dela Madrilekin, eta askotan arrazoiz, baina are gogorragoa izan da hemengo posizioarekin. Eta guretzat horrela ez dago Euskal Herria nazio bihurtzerik. Euskal Herrian, elkar hizketaren bidez eta negoziaketaren bidez, baina ez hemendik kanpo dauden taldeekin bakarrik, baita berton ere negoziatu egin behar genituen gure LTH delako hori, negoziatu egin behar genituen delako himnoa, adibidez.

debemos respetar todos. Si los que pretendemos más que eso lo respetamos, los que pretenden menos que eso también la deben respetar. Pero para nosotros el Estatuto de Autonomía no es únicamente, no es solamente un instrumento para resolver los problemas que tengamos con Madrid, sino que para nosotros el Estatuto de Autonomía es un instrumento para hacer Euskal Herria, para convertir Euskal Herria en una nación. Euskal Herria, evidentemente, es una nación. Eso a nivel político está claro. Es decir, Euskal Herria ha mostrado menudo y muchas veces durante estos últimos siglos su voluntad de autogobernarse. Pero desde el punto de vista lingüistico, cultural, todavía tenemos que avanzar sociológicamente, en la sociedad vasca para que Euskal Herria sea una nación, una verdadera nacionalidad. Y nuestra crítica más dura va por ahí. Euskal Herria, este Gobierno sobre todo, ha sido muy duro con Madrid, y muchas veces con razón, pero ha sido aún mas duro con la oposición de aquí. Y a nuestro entender así no se puede convertir Euskal Herria en una nación. En Euskal Herria, a través del diálogo y de la negociación, pero no sólo con grupos que están fuera de aquí, sino también aquí mismo teníamos que haber negociado esa LTH nuestra, ese himno, por ejemplo.

Decía que mis primeras palabras, naturalmente, sólo podían ser en nuestra lengua nacional, en el euskera, es decir, en "lingua navarrorum".

Zera esaten ari nintzen, alegia, ene lehen hitzak gure nazio hizkuntzan, euskaraz, "lingua navarrorum"ean soilki izan zitezkeela.

Y lo primero que me llamaba la atención de todo el discurso de esta mañana, de un discurso de más de hora y media, es que el antiguo Lehendakari y candidato no nos había dicho nada de Navarra en un discurso de más de hora y media. Y me llamaba la atención porque en la Legislatura anterior fue una preocupación constante, pero para mí reflejaba una filosofía en la exposición del programa de gobierno.

Gaur goizeko mintzaldi osotik, ordu t'erdi pasa iraun bait du, harritu nauen lehen gauza, Lehendakari ohiak eta Lehendakarigaiak ordu t'erdi pasako mintzaldian Nafarroari buruz deus ez esan izana izan da. Eta aurreko legegintzaldian etengabeko kezka izan delako harritu nau, baina, batez ere jaurlaritzaren egitarauaren aurkezpenean filosofia bat isladatzen zuelako.

Y es una exposición de una filosofía que no comparto, según la cual gobernar sería tanto como administrar, es decir, limitarnos a cumplir y a hacer cumplir el Estatuto, limitarnos a hacer leyes en este Parlamento y limitarnos a que esas leyes sean cumplidas y hechas cumplir por los funcionarios y respetadas por la ciudadanía. Me parece que eso es imprescindible, pero creo que gobernar, y sobre todo gobernar en Euskadi, es algo mucho más importante. Tiene que ser un intento de dirigir al pueblo, y por tanto hay que explicar hacia dónde se quiere dirigir, y un intento de aunar voluntades para resolver

Eta horrekin bat ez natorren filosofiaren aurkezpena da, horri jarraiki jaurtzea administratzea adina izango bait zen, hots, Estatutoa bete eta bete arazteara mugatzea, legebiltzar honetan legeak egitera mugatzea eta lege horiek lanariek bete eta betearaztera eta hiritarrek errespetatzera mugatzea. Hori ezinbestekoa delakoan nago, baina jaurtzea eta batipat Euskadin jaurtzea askoz ere garrantzitsuagoa dela iruditzen zait. Herria gidatzeko asmoa izan behar du -beraz, norantz gidatu nahi den azaldu behar da- eta arazoak konpontzeko borondateak biltzeko ahalegina.

Y es una exposición de una filosofía que no comparto, según la cual gobernar sería tanto como administrar, es decir, limitarnos a cumplir y a hacer cumplir el Estatuto, limitarnos a hacer leyes en este Parlamento y limitarnos a que esas leyes sean cumplidas y hechas cumplir por los funcionarios y respetadas por la ciudadanía. Me parece que eso es imprescindible, pero creo que gobernar, y sobre todo gobernar en Euskadi, es algo mucho más importante. Tiene que ser un intento de dirigir al pueblo, y por tanto hay que explicar hacia dónde se quiere dirigir, y un intento de aunar voluntades para resolver los problemas.

Estamos de acuerdo en que los problemas más graves que tiene hoy Euskadi son la violencia, la crisis económica y el proceso autonómico, y me parece que el orden de los factores no altera el producto en este caso. Esto se ha dicho durante los últimos cuatro años, eso hemos dicho nosotros, eso ha dicho varias veces el Lehendakari.

Evidentemente, el causante de la violencia y el causante de la crisis económica no es el Gobierno vasco. Evidentemente también, tampoco es el causante del parón del proceso autonómico. Pero, para nosotros, si nos limitamos a entender la política como mera administración, esos problemas no se van a resolver. Porque, naturalmente, cuando se hace una balance de lo que se ha hecho en cuatro años y de los puestos de trabajo que se han creado, nosotros no podemos ignorar los puestos de trabajo que se han perdido en esos cuatro años. Cuando se nos dice que el Gobierno vasco no apoya la violencia y cuando casi se nos insinúa -porque a veces las acusaciones en este país suelen ser bastante absurdas-... se nos dice que el Gobierno vasco no apoya la violencia, no tiene que ver con la violencia, nosotros le creemos, pero nosotros pensamos que el cargo de Lehendakari en Euskadi es un cargo muy importante, porque es el representante del pueblo vasco ante el Estado, y es el representante también del Estado en la Comunidad Autónoma, el máximo representante, y creo que en esta Cámara tenemos que hacer un intento y un esfuerzo serio para intentar resolver estos problemas.

Creo que no podemos limitarnos a decir: "Nosotros, con la crisis económica, pues, lo siento mucho, pero no somos los causantes. Es una crisis mundial..." Y tampoco podemos decir que la violencia, bueno, pues que, en fin, que eso ya se resolve-

Eta horrekin bat ez natorren filosofiaren aurkezpena da, horri jarraiki jaurtzea administratzea adina izango bait zen, hots, Estatutoa bete eta bete arazteara mugatzea, legebiltzar honetan legeak egitera mugatzea eta lege horiek lanariek bete eta betearaztera eta hiritarrek errespetatzera mugatzea. Hori ezinbestekoa delakoan nago, baina jaurtzea eta batipat Euskadin jaurtzea askoz ere garrantzitsuagoa dela iruditzen zait. Herria gidatzeko asmoa izan behar du -beraz, norantz gidatu nahi den azaldu behar da- eta arazoak konpontzeko borondateak biltzeko ahalegina.

Egun Euskadik dituen arazorik larrienak indarkeria, ekonomia kinka eta autonomia bidea direlako horretan bat gatoz, eta eragileen hurrenkerak kasu honetan ez du ekoizpena aldatzen, ene iritziz. Hori esan izan da azken lau urteotan, hori esan dugu guk, hori sarritan esan du Lehendakariak.

Jakina, indarkeria eta ekonomia kinka ez ditu eusko Jaurlaritzak sortarazi. Jakina, ez du, halaber, autonomia aurrerabidearen geldialdia sortarazi. Baina, guretzat, politika administrazio huts gisa ulertzeari mugatzen bagatzaizkio, arazo horiek ez dira konponduko. Ze, jakina, lan urtetan egin denaren eta sortu diren lanpostuen babiaka egiten denean, guk ez bait dugu lan urte horietan galdu diren lanpostuez ahanzterik. Eusko Jaurlaritzak ez duela indarkeriarik aldezten esaten zaigunean eta ia erdi esaten zaigunean -zeren zenbaitetan salaketak herri honetan nahikoa zentzugabekeriazkoak izan ohi bait dira...- eusko Jaurlaritzak ez duela aldezten, ez duela indarkeriarekin zerikusirik esaten zaigunean, guk sinetsi egiten diogu, bainan gure ustez Euskadin Lehendakari izatea oso kargu garrantzitsua da, Estatuaren aurrean euskal herriaren ordezkaria bait da, eta halaber Autonomia Elkartean Estatuaren ordezkaria, ordezkari gorena, eta Biltzarre honetan arazo hauek konpontzen saiatzeko benetako saio eta ahalegina egin behar dugula uste dut.

Ene ustez ez dugu honako hau esatera mugatzerik: "Asko sentitzen dut, baina ekonomia kinka ez dugu guk sortu. Mundu mailako kinka da". Eta era berean ezin dugu esan indarkeria jentea Estatutoa miresgarria denaz jabetu dadinean konpondu-

rá cuando se convenza la gente de que el Estatuto es maravilloso. Creo que, aceptando que no son los causantes, naturalmente, de esa crisis, de todos estos problemas, tenemos que hacer un esfuerzo para intentar resolverlos. Y voy a ir por partes, y voy a tratar el tema de la crisis económica.

Un economista vasco muy conocido decía hace muy poco que cada Ministro, cada político ha tratado de convencernos sin excepción de que el presente podría ser todo lo negativo y difícil que quisiéramos, pero que ya el año próximo, siempre el año que viene, sería mejor. Y la gente, naturalmente, que anhela las buenas noticias, se traga un mensaje que trata de dejar sentada la ficción de que, antes o después, volveremos a lo de antes, es decir, al desarrollo -lo que en euskera hablaba-; un poco la idea de que la crisis económica es una especie de maldición bíblica como la de las vacas flacas: que hubo una época de desarrollo, siete años de vacas gordas, que ahora hay una época de vacas flacas, pero que, bueno, esto se iba a resolver solo cuando se superara la crisis económica y que Euskadi saldría de esta crisis.

La realidad, desde nuestro punto de vista, es mucho más desagradable de lo que se ha expresado esta mañana. Desde el punto de vista económico, pensamos que desde el comienzo de la crisis económica -y llevamos ya nueve años- en la Comunidad Autónoma se han venido perdiendo entre 15.000 y 20.000 empleos anuales; la mayoría además en los sectores directamente productivos, como es la industria y la construcción, y esto también ha sido verdad en los cuatro años en que ha sido Lehendakari el señor Garaikoetxea. En este país se destruye, se está destruyendo empleo todos los días, y cada año entran más de 15.000 personas nuevas al mercado de trabajo. Naturalmente, el problema es difícil.

Por eso nosotros no nos creemos esas contabilidades que nos dicen que se está superando la crisis, que el año que viene va a ser mejor, como decía. Y ustedes se han acostumbrado a manejar los datos a su manera, de forma que siempre da la impresión al público de que las cosas van a mejorar gracias al Gobierno vasco. Y el ejemplo más reciente lo hemos tenido - cuando se han atrevido a afirmar en la campaña electoral, públicamente, que en Euskadi, a diferencia del resto del Estado, se está creando empleo en los últimos meses, cuando todo el mundo sabe que los

ko dela. Ene ustez, kinka hau arazo guzti hauek ez dutela, noski, eurek sortu onartuz, ahaleginak egin behar ditugu hauek konpontzen saiatzeko. Eta zatika ariko naiz, eta ekonomia kinkaren gaia aztertuko dut.

Oso euskal ekonomilari ezagunak duela oso gutxi hau zioen, hots, Ministrari bakoitza, politikari bakoitza salbuespenik gabe, oraina nahi bezain ezezkor eta zaila izan arren, hurrengo urtean jadanik, beti datorren urtean, hobea izango zenaz konbentzi arazten saiatu dela. Eta jenteak, noski, berri onak itxaroten bait ditu, lehenago ala beranduago, lehengora, hots, aurrerapena -euskaraz nioenez- itzuliko gareneko ametsa finkaturik uzten saiatzen den mezua irentsi egiten du; gutxi gora behera ekonomia kinka behi argalena bezalako bibliako madarikapen antzekoa delako ideia: aurrerapenezko aldi bat egon zela, behi gizenen zazpi urte, orain behi argalen aldi dela, bainan, tira, hau ekonomia kinka gaindi ledinean besterik gabe konponduko zela eta Euskadi irten egingo zela kinka honetatik.

Egoera, gure ikuspegitik, gaur goizean adierazitakoa baino askoz ere desatseginagoa da. Ekonomiaren ikuspegitik, ekonomia kinka hasi zenetik -eta jadanik 9 urte daramagu- Autonomia, 15.000tik 20.000 lanbide galtzen joan dira urtero; gehienak artez alor ekoizleetan gainera, industria eta eraikintza esaterako, eta egia izan da halaber Garaikoetxea jauna Lehendakari izan deneko lan urteetan. Herri honetan lanbidea suntsitu egiten da, egunero ari da lanbidea suntsitzen, eta urtero 15.000 pertsona berritik gora sartzen da lanaren merkatuan. Arazoa zaila da, noski.

Horregatik ez ditugu sinesten guk, nioenez, kinka gainditzen ari dela, datorren urtea hobea izango dela esaten diguten hainbaketa horiek. Eta zuek datuak zeuen erara erabiltzen ohitu zarete, hala nola gauzak eusko Jaurlaritzari esker hobetuko direla iruditzen zaiolarik beti herriari. Eta adibiderik berriena honako hau dugu, hots, hauteskunde aldian, herriaren aurrean, Euskadin, Estatuan ez bezala, azken hilabeteotan lanbidea sortzen ari dela baieztatzera ausartu direnean, joan den larrazkenean sortu diren lanbide bakarrak uholdeen ondorioak garbitzen ihardun duten ia 15.000

únicos empleos que se han creado el pasado otoño fueron casi 15.000 personas dedicadas a limpiar las consecuencias de las inundaciones, pero que este empleo no se puede comparar, por su propia naturaleza, con los 18.600 empleos que sólo el año pasado se perdieron en la industria. O, por recordar otro tema, cómo uste anunció hace año y medio en este mismo estrado que lo peor de la reconversión ya había pasado, cuando hoy mismo ha tenido que reconocer la enorme dureza de la reconversión que todavía está pendiente de realizarse.

Según nuestra opinión, ustedes siguen pecando de un defecto: confían todo al libre mercado -en el fondo, a los empresarios-, y eso a pesar de que cada día es más evidente que los empresarios en este país están a la defensiva y que no conocen otra solución que despedir y pedir ayudas públicas para enderezar sus empresas. A nadie se le oculta que despedir y regalar el dinero público no es factible sin las adecuadas contrapartidas políticas y económicas. ¿A dónde se envían los despedidos? ¿Qué contrapartidas se van a exigir a los empresarios por el dinero recibido? Para nosotros, estos son los problemas políticos que siguen estando pendientes y que usted no ha mencionado.

Usted ha hablado, por ejemplo, del fraude fiscal, pero no podemos olvidar que, según las estimaciones del Estado, hay más de un billón de pesetas de fraude, lo que supondría unos 60.000 millones de pesetas que los defraudadores no pagan en Euskadi. Durante los cuatro años anteriores, en la pasada Legislatura, su Gobierno no ha hecho nada para homogeneizar la actuación de las diputaciones en materia de fraude, e incluso no ha aceptado las propuestas que en este sentido le hizo nuestro partido.

¿Qué garantías da usted de que se va acabar con ese mecanismo reaccionario por el cual el dinero público que se recauda se saca sobre todo de las clases asalariadas y se regala a unos empresarios que han sido incapaces de gestionar adecuadamente sus empresas y que, en el caso de que con el dinero público salven el apuro, van a ser los únicos que disfruten del poder en las nuevas empresas reflotadas con el sacrificio de todos? Y eso en el caso de que tengan éxito las ayudas a las empresas en crisis, porque conviene recordar que gran parte de las generosas ayudas entregadas por su Gobierno a las empresas en crisis de forma individual no han servido más que para prolongar la agonía de esas empresas y para financiar el despido de unos cuantos

pertsona izan zirela dakigularik denok, bainan lanbide hau, bere izaeragatik, ez dagoela ihaz soilki industrian galdu ziren 18.600 lanbideekin alderatzerik. Edota, beste gai bat oroitarazteagatik, nola zuk duela urte t'erdi mintzatoki honetan bertan birrantolaketaren zatirik txarrena jadanik igaroa zela iragarri zenuen, aitzitik, gaur bertan oraindik egiteke dagoen birrantolaketaren gogortasun latza onartu behar izan duzularik.

Gure eritziz, zuek akats bera daukazue: oro merkatu jareari fidatzen diozue -funtsean, enpresariei- eta hori herri honetan enpresariak beren buruak aldeztezko jarrera dutela eta lanetik bidali eta beren enpresak zuzentzeko herri languntzak eskatu beste irtenbiderik ez dutela ezagutzea egunetik egunera argiagoa den arren. Inori ez zaio ezkutatzen lanetik bidaltzea eta herri dirua erregalatzea ezin dela burutu politika eta ekonomiazko ordain egokirik gabe. Nora igortzen dira bidalitakoak? Zein ordain eskatuko zaie hertsiki enpresariei hartutako diruagatik? Guretzat hauek dira oraindik burutzeke dauden eta zuk aipatu ez dituzun politika arazoak?

Termino ya, señor Presidente, manifestándole al señor candidato lo que he dicho al principio: los socialistas comenzamos esta Legislatura con el ánimo de romper definitivamente ese ciclo de violencia y desacuerdo en que vive el País Vasco desde 1977. Para ello, creemos que son necesarios los acuerdos; le reiteramos nuestra voluntad de diálogo, nuestra voluntad de negociación, nuestro espíritu incluso de colaboración, si nos ponemos de acuerdo en los problemas fundamentales que tiene el País Vasco.

Yo creo que el candidato, el señor Garaikoetxea, coincide en buena medida -porque lo ha expresado en su discurso- con este planteamiento y ha hecho una propuesta que nosotros valoramos como muy positiva, que aceptamos y que de alguna forma nosotros queremos concretar en que este país necesita un acuerdo en la lucha contra el terrorismo en una doble vertiente, un acuerdo del Gobierno vasco y del Gobierno de la nación, un acuerdo entre nosotros sobre cómo combatir la violencia. Es preciso un acuerdo sobre el Estatuto en una doble vertiente, sobre las transferencias pendientes y sobre la construcción de la Comunidad Autónoma vasca por acuerdos amplios. Y, en tercer lugar, la situación económica también requiere de acuerdos, requiere de un acuerdo sobre la reconversión entre los dos Gobiernos y requiere que nos pongamos, nosotros y las fuerzas sociales, de acuerdo sobre un plan económico.

Como he dicho al principio, la empresa no va a ser fácil y no va a estar exenta de dificultades, pero yo creo que vale la pena intentarlo, porque si se producen esos acuerdos el beneficiario va a ser el pueblo vasco. En la medida en que el candidato esté de acuerdo también con este planteamiento final que hacemos los socialistas en esta intervención, en la medida en que esté de acuerdo y sea coincidente en la necesidad de estos tres acuerdos, que yo creo que lo es, nuestro voto, que será un voto en blanco, será también un voto de expectativa, un voto de diálogo y de negociación, un voto de esperanza en el sentido de abrir una nueva etapa en este país en la que tratemos de resolver los problemas de nuestro pueblo buscando el acuerdo y no el enfrentamiento. Nada más y muchas gracias.

<u>Solicita la palabra el Sr. Garaikoetxea.</u>

Bukatzera noa, Lehendakari jauna, hautagai jaunari haseran esan dudana adieraziz: 1977.az geroztik Euskal Herria bizi deneko indarkeria eta bat ez etortzezko aldi hori behin betirako hausteko asmoz hasten dugu sozialistok legegintzaldi hau. Horretako akordioak beharrezko dira gure ustez; berriz adierazten dizugu elkarrizketatzeko gure gogoa, itunebideak egiteko gogoa, eta baita elkarlanerakoa ere, baldin eta Euskal Herriak dituen funtsezko arazoei buruz bat bagatoz.

Nere ustez hautagaia, Garaikoetxea jauna bat dator jarrera honekin neurri handi batetan -bere mintzaldian hala adierazi bait du- eta gure ustez oso baikorra den eta onartzen dugun proposamena egin du, eta guk honela zehazten dugu: herri honek izuekintzaren aurka borrokatzeko bi aldetatiko akordioa behar du, hots, eusko Jaurlaritzaren eta nazioko Jaurlaritzaren arteko akordioa, indarkeriari nola erasotzeari buruzko geure akordioa. Estatutoari dagokionez, bi aldetatiko akordioa behar da, egiteke dauden akordioei dagokiena eta euskal Autonomia-Elkartea akordio zabalez eraikitzeari dagokiona. Eta, hirugarrenik, ekonomia-egoerak eta akordioak eskatzen du, birrantolaketari buruz bi Jaurlaritzen arteko akordioa eskatzen du eta gu eta gizarte-indarrak ekonomia-egitasmo bati buruz bat etor gaitezen eskatzen du.

Haseran esan dudanez, egitekoa ez da erraza izango eta ez zaio eragozpenik faltako, baina nere ustez, merezi du saiatzeak, akordio horiek egia bihurtuz gero euskal herriaren onerako izango bait da. Sozialistok mintzaldi honetan egiten dugun azken jarrera honekin bat etor dadin heinean, hiru akordio hauen beharrari buruz bat etorri eta irizkide izan dadin heinean, eta nik baietz uste dut, gure botoa, boto zuria izango dela, orobat zain egotekoa elkarrizketa eta itunebideketaren aldekoa eta itxaropenezko botoa izango da, herri honetan aldi berri bati hasera ematearen aldetik, hor gure herriaren arazoak tirabira ez, baina akordioa bilatuz konpontzen saia gaitezen. Besterik ez eta eskerrik asko.

<u>Garaikoetxea jaunak hizpidea eskatzen du.</u>

El Sr. **PRESIDENTE:** Tiene la palabra el candidato a Lehendakari.

El Sr. **GARAIKOETXEA URRIZA:** Señor Presidente, agradezco, señor portavoz del Grupo Socialista, el tono general de su intervención y especialmente esa primera parte en la que ha subrayado casi en términos elogiosos algunos de los aspectos de mi discurso de esta mañana. Yo lamento el tipo de voto, que les impide a ustedes dar mayor relevancia a su voto afirmativo o a su eventual abstención, en contraste con un posible voto negativo, pero fácilmente comprenderán que no es un capricho de este candidato y que, si de él dependiera, desde luego no tendría ningún inconveniente en que el sistema fuera el que usted ha evocado.

Me alegra la ratificación de este espíritu de entendimiento y de diálogo. Yo no quiero competir en méritos a la hora de atribuirme mayor o menor iniciativa en este espíritu; me alegro simplemente de que coincidamos. Yo he dicho esta mañana que la sinceridad de este espíritu la creía yo autentificar con el detalle significativo de que, en plena confrontación electoral -confrontación electoral que fue por cierto bien dura y en algunos momentos agria en las formas y en el fondo-, yo hice esta proposición. En el hecho de que en el pasado el entendimiento no haya sido posible creo que es equitativo, como también en algún momento ha señalado usted, que nos repartamos el mérito unos y otros de que así sucediera, porque, aunque usted señala que la responsabilidad corresponde fundamentalmente, cuando en un país no hay acuerdos, a quien gobierna, no podemos olvidar que aquí gobernar significa todavía, iba a decir yo, como nacionalista, desgraciadamente, cogobernar bastante. Hay muchas cosas que hacemos nosotros como Gobierno de Euskadi, pero hay muchas cosas que suceden en este país por los designios de un Gobierno que existe en Madrid que es de ustedes y que, por consiguiente, nos guste o no nos guste, cogobierna aquí, en unas ocasiones actuando directamente y en otras ocasiones constituyendo nuestro elemento de contradicción, nuestro interlocutor en las grandes disputas que todavía tenemos pendientes.

Por consiguiente, o gobernamos en positivo, como gobiernan ustedes todavía en las competencias que ejercen desde Madrid en este país, o, valga la expresión, gobiernan en negativo en tanto en cuanto son la otra cara de la discusión que venimos man-

**LEHENDAKARI** jaunak: Lehendakarigaia da hizpidearen jabe.

**GARAIKOETXEA URRIZA** jaunak: Lehendakari jauna, eskertzen dizut, sozialistak taldearen taldeburu jauna, zure hitzaldian orohar erabilitako mintzaera eta bereziki lehen zatikoa, hor gaur goizeko nire mintzaldiko zenbait alderdi ia goraipatuz azpimarratu bait dituzu. Deitoratzen dut botoaren nolakoa, zuen baiezko botoari edo agiango botorik ez emateari garrantzi handiagoa ematea eragozten bait dizue, agiango ezezko botoari bekez-beko, bainan errazki ulertuko duzue hori ez dela hautagai honen apeta eta, izan ere, neure baitan egongo balitz, ez nuke inolako eragozpenik sistema zuk eskatutakoa izan ledin.

Pozten nau elkar ulertzeko eta elkarrizketatzeko gogo hau birbaieztatu izanak. Nik ez dut merezimendu-lehiaketarik egin nahi gogo honi buruzko ario gehiago edo gutxiago neureganatzerakoan; poztu egiten naiz soilki bat gatozelako. Esan dut gaur goizean, hauteskunde-lehiaketa betebetean -hauteskunde-lehiaketa hau izan ere aski gogorra eta une batzutan eraz eta funtsez garratza izan zelarik- nik salo hau egin nuelako xehetasun esanguratsuak egiaztatzen duela nere ustez. Iraganean elkar ulertzea ezinezko izan delakoa bidezko da nere ustez, zuk ere lehen aipatu duzunez, hori horrela gertatu izanaren merezimendua bai batzuren bai besteren artean banatzea, zuk herri batetan akordiorik ez dagoenean horren erantzukizuna nagusiki jaurtzen duenari dagokiola esan arren, ez dugu ahazterik hemen jaurtzeak, abertzale naizenez tamalez esan behar nuen, nahikoa hein zabalean besterekin batera jaurtzea esan nahi duela. Gauza asko Euskadiko Jaurlaritza garenez egiten ditugu, baina herri honetan gauza asko Madrilen egon dagoen eta zuena den Jaurlaritzaren erabakizkoak dira eta, horri darionez, guri atsegin izan ala ez, hark hemengoarekin batera jaurtzen du, batzutan artez jokatuz eta beste batzutan gure kontrakotasun-elementu, oraindik egiteko dauzkagun eztabaida nagusietan gure solaskide izanez.

Ondorioz, modu baikorrez jaurtzen dugu, zuek oraindik herri honetan Madriletik egiteratzen dituzuen aginteetan jaurtzen duzuen bezala, edo, zilegi bekit esatemodua, modu ezezkorrez jaurtzen duzue, guk aspaldidanik eusten diogun eztabaidaketa-

teniendo nosotros durante mucho tiempo, o el interlocutor que impide que nosotros ejerzamos determinadas competencias de Gobierno en este país. Quiero decir, en palabras más simples, que, en definitiva, esa responsabilidad de la falta de entendimiento hasta el presente la tendremos en todo caso que compartir. Y, segundo, que yo no soy tan pesimista como usted. Se está poniendo de moda ser demasido pesimista en este país, al decir -y eso me suena además, eso que ha dicho usted- que "estamos en desacuerdo en todo". ¡Hombre! En todo no estamos en desacuerdo, y hay cosas como la "hache" que afortunadamente se van superando en este país, y además en representantes bien notorios de la "antihache" tiene usted el mejor testimonio de que es un problema, insisto, que se va superando.

Sí es verdaderamente un elemento de desacuerdo notorio el procedimiento más eficaz para enfrentarnos con ese gran problema, que todos coincidimos en calificar de tal, de la violencia. A él me voy a referir a continuación, pero antes, para no perder el hilo de su discurso, yo quiero también decirle que me parece injusto que insistan ustedes en eso que también quiero repetir yo que es un tópico, de la imposición de las señas de identidad, del afán monopolizador que tiene el Gobierno nacionalista en la imposición de las señas de identidad en este país, etcétera. Mire, le estaba escuchando a usted, señor Benegas, y estaba escuchando al señor Obiols en Cataluña: es un latiguillo que tenemos que desterrar de una vez, yo creo que es un tópico excesivo el que ustedes manejan cuando se refieren a eso de la imposición de las señas de identidad.

Hay una especie de actitud, no sé si reflexiva o que parte del subconsciente, y que tiende, en definitiva, precisamente a mantener la división de dos comunidades, a crear un sentimiento de marginación. Y yo no digo que cuando usted dijera eso, en un discurso que ha estado presidido por un tono cordial y constructivo, estuviera apuntando malévolamente a alimentar ese sentimiento de división de dos comunidades, de mantenimiento de una clientela que se sienta marginada, etcétera, con la eterna apelación a eso del Gobierno que no es de todos, a eso de la imposición de las señas de identidad, que, repito, creía estar escuchando al señor Obiols en Cataluña, insisto, cuando usted intervenía antes aquí.

ren beste aldea, edo guk herri honetan Jaurlaritza-aginte zehatzak egiteratu ditzagun eragozten digun solaskide zaretenez. Hitz soilagoz hau da esan nahi dudana: azken batetan, orain arteko elkar ulertezina banatu egin beharko dugula gehienez ere. Ugariegi dabil gaur egun Herri honetan etsikor izatea "ezertan ere ez gatoz bat" esaterakoan. Herri honetan ugariegi dabil gaur egun etsikor izatea, adibidez, "ezertan ere ez gatoz bat" esaterakoan; eta hori zuri entzun dizut. Gizona! Ez da hainbesterako, herri honetan badaude zenbait arazo, "hatxe"-ri buruzkoa esate baterako, zorionez gaindituz doazenak, eta gainera "hatxeren-aurkako" ordezkari nabarnenengan dakusakezu gaindituz doan arazoa dena.

Bat ez etortzezko elementu nabaria da egiazki indarkeriaren arazo nagusiari, eta hau horrela denaz denok bat gatoz, aurre egiteko biderik eraginkorrena. Horretaz mintzatuko naiz ondoren, bainan horren aurretik, zure mintzaldiaren jarraia ez galtzearren, honako hau ere esan nahi dizut: ez zait bidezko iruditzen zuek, arrunkeriaz, eta hau argi utzi nahi dut, nortasun-ezaugarriak ezartzeaz, herri honetan nortasun-ezaugarriak ezartzeari dagokionean Jaurlaritza abertzaleak duen dena beretzeko xedeaz eta horrelakoetaz behin eta berriz akio egitea. Begira, zuri entzuten ari nintzela, Benegas jauna, Catalunyan Obiols jaunari entzuten ari nintzela iruditzen zitzaidan: behin betirako bazter utzi behar dugun zirikatzea da, zuek nortasun-ezaugarrien ezarketa delakoa aipatuz gehiegi erabiltzen duzuen arrunkeria da nere ustez.

Ba dago halako joera bat, ez dakit gogoeta bidezkoa ala subkonszientetik datorrena denenz, azken batetan, hain zuzen ere bi elkarte bekoz-beko egon daitezen saiatzen dena, bazterkeria-sentimendua sortzearen aldekoa. Eta nik ez dut esaten zuk txerazko hitzak eta eginkortasuna nagusitu direneko mintzaldian hori esaterakoan, gogo txarrez bi elkarte bekoz-beko egotezko, bere burua baztertutzat jo dezan jenderik egoteari irautaraztezko etabarrezko sentimendu hori pizten ibili zarenik, guztiona ez den Jaurlaritza, nortasun-ezaugarrien ezarketa delakoa etabarri buruzko etengabeko aipamenez, eta, berriz diot, zu lehenago hemen hitz egiten ari izan zarenean Catalunyan Obiols jaunari entzuten ari nintzela uste nuen.

Yo creo que eso es injusto; no es así. Yo he asegurado esta mañana, al hablar de la cultura, al hablar de nuestra concepción del país, al hablar de la educación, al hablar de la Universidad, al hablar de un montón de cosas, que no es ésa, desde luego, nuestra idea sobre la manera de afrontar los problemas principales de este país y aquellos problemas, como el problema cultural -pongo por caso-, en los que más de manifiesto se puede poner ese carácter impositivo de las señas de identidad a que usted se refería. Entiéndame lo que acabo de decir con una cierta pasión como una seguridad que yo quiero darle de que no es ése nuestro espíritu ni nuestra intención al afrontar un nuevo período de gobierno.

Claro, cuando contesto, señor Benegas, como me sucede con nuestros compañeros de otros grupos de la oposición, tengo que referirme, insisto una vez más, a los puntos en los que estoy en desacuerdo. No quiero ser poco amable no recordando los puntos en los que estoy de acuerdo, pero, mire, cuando usted habla de ETA y de combatir a ETA y combatir la violencia y cita todos esos puntos, pero sobre todo cuando hace esa afirmación tajante inicial, de que su partido está firmemente decidido a terminar con ETA, solos o con el Gobierno vasco, a mí me parece muy bien, pero yo le invito a que repase lo que han dicho hasta ahora todos los Gobiernos que han existido en Madrid, y creo que ninguno ha dicho algo diferente. Y eso nos debe inducir a todos a no tener un excesivo énfasis, a no poner un excesivo énfasis en esas declaraciones que a mí me parece lógico que se hagan, pero que son ya un disco que hemos escuchado hace muchos años, incluso en la época no democrática.

Yo creo que efectivamente es imperativo un esfuerzo, un esfuerzo decidido por acabar con este problema. Y yo he propuesto esta mañana seis medidas, he sistematizado en seis capítulos algo que luego aflora en esos seis puntos que usted ha sacado a colación, señor Benegas, por lo menos en algunos de ellos. Muy bien. Usted dice: "Voy a añadir cinco" -no sé si seis-, "cinco medidas más a las que usted citaba esta mañana". Y empieza diciendo -y es de justicia reseñar que usted mismo ha advertido que podía estar implícito en lo que yo había dicho-, empieza diciendo: acuerdo entre el Gobierno del Estado -Gobierno de la nación, como dicen ustedes-con el Gobierno de la nación vasca, como decimos nosotros. Bueno, pues eso está implícito en lo que yo he dicho esta mañana. Naturalmente, vamos a concurrir con diferentes

Hori nere ustez ez da zuzena; ez da horrela. Nik gaur goizean kulturaz hitz egiterakoan, Unibertsitateaz hitz egiterakoan, hainbat gauzez hitz egiterakoan ziurtatu dut hori ez dela, izan ere, herri honetako arazo nagusiei eta esate baterako kulturaren arazoari nola aurre egiteari buruz dugun ideia, honetan nabariago ager bait daiteke zuk aipatzen zenuen nortasun-ezaugarriak ezartze hori. Halako griñaz esan berri dudan hau, jaurtze-aldi berri bati aurre egiterakoan ez gogo hori ezta asmo hori ere ez dugunaz eman nahi dizudan segurantza gisa har ezazu.

Argi dago, Benegas jauna, erantzuten dudanean, aurkako beste taldeetako gure kideekin gertatzen zaidan bezala, berriz diot, bat ez natorreneko puntuak aipatu behar ditudala. Ez dut nekagarri izan nahi bat natorreneko puntuak ez aipatuz, bainan, begira, zu ETAz, ETAren aurkako borrokaz eta indarkeriaren aurkako borrokaz ari zarenean, eta puntu guzti horiek aipatzen dituzunean, bainan batez ere haseran egin duzun erabateko baieztapen hori, hau da, zure alderdiak bakarrik nahiz eusko Jaurlaritzarekin batera ETA desegiteko asko tinkoa duela esanaz, niri oso ongi iruditzen zait, bainan nik orain arte Madrilen izandako Jaurlaritza guztiek esan dutena azter dezazun esango nizuke, nere ustez ez bait du haietako ezeinek gauza berririk esan. Eta hori horrela adierazpen horiei ez diegu gehiegizko arretarik eman behar, hauek egin daitezen arrazoizko iruditzen bazait ere, aspaldidanik, baita demokraziarik ez zegoen garaian ere, entzundako diska bait dira orain.

Nere ustez behar-beharrezkoa da, izan ere, arazo hau kentzeko ahalegin tinkoa. Eta gaur goizean proposatu ditudan sei neurriak, sei idazpurutan arauztatu dudana zuk, Benegas jauna, aipatutako sei puntu horietan, haietako batzutan behintzat, agertzen da. Oso ongi. Zuk zera diozu: "Zuk gaur goizean aipatzen zenituen neurriei beste bost puntu" -edo sei, ez dakit- "erantsiko dizkiet". Eta honela hasten zara -eta bidezko da esatea zerorrek gaztigatu duzula nik esandakoaren baitan zegokeena-, honela hasten zara: Estatuko Jaurlaritzaren -nazioko Jaurlaritza, zuek esaten duzuenez- eta, guk esaten dugunez, euskal nazioko Jaurlaritzaren arteko akordioa. Ba hori nik gaur goizean esandakoaren baitan dago. Ikuspegi desberdinez bilduko gara noski, bainan arazo hori desegiteko elkar uler gaitezen

ópticas, pero en ese esfuerzo de entendimiento en el tratamiento, y en el tratamiento para acabar con el problema, he querido ser especialmente rotundo esta mañana.

Segundo: colaboración con las Fuerzas de Seguridad. Yo no voy a rehuir este espinoso problema. No me convierta usted una anécdota en categoría o en cuestión fundamental. Yo le he dicho al señor Mayor Oreja algo que ya he contado en alguna ocasión, el problema ése de las actitudes que también uno percibe en las propias Fuerzas de Seguridad del Estado, el ostensible volver la espalda en ocasiones, la falta de saludo, como una anécdota. Como una anécdota que además yo entiendo en ese contexto de incomprensión, de recelos y de problemas que tienen raíces lejanas ya, profundas, y que el tiempo sin duda irá superando. Lo citaba como una anécdota de esos pliegos de agravios, de esos capítulos de recelos recíprocos que uno podría sacar a colación cuando empezara a estudiar este espinoso asunto sin dejar en el tintero ni una sola gota de tinta a la hora de contarlo todo.

Eso no es más que una anécdota. Me preocupa mucho más -y perdone usted que saque a colación cuestiones de éstas, porque hay que sacarlas- cuatro "geos" que tropiezan en un coche con una Mobylette en Hendaya, o me preocupa mucho más el episodio de Pasajes de hace dos semanas, cuando uno escucha que tiene que responsabilizarse y prestar un aval o un apoyo a unas actuaciones policiales. Tampoco -y tengo que decirlo claramente- elevo a una generalización lo que son episodios desgraciados que quiero considerar aisladamente y quiero considerar cada día más aislados, como cuando el señor Onaindía se refería a la tortura. Esos problemas que hemos denunciado y que tenemos que denunciar, y que no podemos avalar dando un cheque en blanco, yo espero que tengan categoría de episodio circunstancial, aislado, y no categoría de comportamiento continuo y general que impida ese entendimiento y esa coordinación en la que yo he hecho énfasis para este periodo transitorio, en el que todavía estamos diseñando el cuadro final de distribución de competencias policiales, que para mí es una cuestión esencial.

No puede pedírsenos a nosotros que demos incondicionalmente un respaldo a un tipo de actuación y de planteamientos policiales en el país mientras estamos escuchando que los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado no serán sustituidos por la

ahalegina egiteari buruz bereziki zehatza izaten saiatu naiz gaur goizean.

Bigarren: Segurantza-Indarrekingo elkarlana. Nik ez dut arazo neketsu hau isilpean utziko. Ez iezaiozu gertakari hutsari bere biziko garrantzirik eman. Nik Mayor Oreja jaunari esan diodana, eta beste noizbait ere kontatu dut, hau da, Estatuko Segurantza-Indarren beren nerekiko jarreren arazo hori, zenbaitetan bizkar emate nabaria, ez agurtzea gertakari modura esan diot. Eta areago, nere ustez, gertakari hori elkar ulertezinaren, susmotxarren eta denboraren eraginez dudarik gabe gaindituko diren aspaldiko sustraiak, sustrai sakonak dituzten arazo horien inguruan kokaturikoa. Kaltezerrenda horietako, elkarrekiko susmotxarren kapitulu horietako gertakari modura aipatzen nuen, eta hau arazo neketsu hau tinta-ontzian tantarik ere utzi gabe, dena kontatuz, aztertzen hasi ezkero aipa nezake.

Hori gertakari bat besterik ez da. Askoz ere gehiago arduratzen nau -eta barka honelako arazoak aipatzeagatik, bainan aipatu beharrekoak dira- Hendaian direlako lau "geo" autoz zihoazela eta Mobylette batekin topo egiteak, edo duela bi aste Pasaian gertatutakoak, aldi berean ardura hartu behar dudala eta ertzainen jokabide batzu babestu behar ditudala entzuten dudalarik. Onaindia jaunak tortura aipatzen zuenean, esate baterako, bakantzat jo nahi ditudan eta gero eta bakanduagotzat jo nahi ditudan gertakari tamalgarri horiei ere ez ditut orohartzezko mailan jartzen -eta hori argi eta garbi esan behar dut- salatu ditugun eta salatu egin behar ditugun eta txeke zuria emanez ezin berma ditzakegun arazo horiek noiz nola, bakanki gerta daitezen espero dut eta ez segidan eta orokorki, nik aldi iragankor honetarako azpimarratu dudan elkar ulertze eta elkarkidetzea eragotziz, aipatu aldian niretzat funtsezko arazoa den ertzaintza-aginteen banaketarako azken taula egiten ari baikara.

Guri ezin zaigu eskatu herri honetan ertzainei buruzko halako jokabide eta jarrera baldintzarik gabe babesterik, Estatuko Segurantza-Indarren ordez ez dela euskal autonomia-Ertzaintza jarriko entzuten ari garelarik. Nere ustez honek argi geratu

Policía autónoma vasca. Yo creo que esto tiene que quedar tan claro como otras muchas cosas. En el Estatuto se establece nuestra competencia, que es competencia como la que desarrollamos en Educación o como la que desarrollamos en otros ámbitos, en los que hay una sustitución de responsabilidades y de actuaciones competenciales. En la Policía tiene que suceder algo que es exactamente lo mismo, y, por consiguiente, no es congruente una postura en la que a uno se le piden responsabilidades mientras se afirma simultáneamente que la Guardia Civil o la Policía Nacional no se van a retirar de determinados lugares. Yo creo que tenemos que ser muy claros unos y otros, y mi actuación esta mañana ha sido una actuación que pretendía invitar a poner sobre la mesa todos los aspectos del problema, para que todos nos retratemos -valga la expresión- en la medida en que tengamos que hacerlo.

Yo he hablado repetidamente también esta mañana de propiciar el esfuerzo común de las fuerzas políticas democráticas. He hablado incluso de una plataforma que a usted quizá no le parezca la más acertada o la más idónea, como puede ser la Comisión de Derechos Humanos. Me da lo mismo ésa u otra, el fondo de la idea es el mismo. Efectivamente, yo creo que hay que alimentar un diálogo permanente de todas las fuerzas democráticas. Creo que el foro por excelencia de ese diálogo es este Parlamento o cualquier sala de este Parlamento en la que funcione un grupo, una comisión "ad hoc" o como le queramos llamar, y ojalá, ojalá se incorporen a él también quienes ostentan representaciones de este país y hoy por hoy no quieren venir a este Parlamento. ¡Ojalá estemos todos en él! Pero, mientran no estén, yo desde luego he dicho esta mañana claramente que ojalá se potencie una plataforma de diálogo de todas las fuerzas democráticas que asisten a esta casa.

Estoy de acuerdo a medias con usted, señor Benegas, cuando dice que no sólo hay que rechazar los métodos de ETA, sino también sus metas. Pues, mire, yo espero no escandalizar a nadie en este Parlamento: yo rechazo los métodos de ETA y de sus epígonos, pero desde una perspectiva democrática yo no tengo por qué descalificar objetivos como los que ellos propician si se llevan a través de cauces democráticos y se juega limpiamente en las instituciones democráticas todos esos objetivos. Es lo que decía yo esta mañana cuando también reivindicaba el derecho de toda opción legítima, de toda ideología legítima, a com-

behar du beste hainbat gauza bezala. Estatutoan ezarrita dago honi dagokionez daukagun ahalmena, Hezkuntzari edo beste alorrei dagokienean egiteratzen ditugun ahalmenak bezalaxe, hauetan ordezkatu egiten bait dira ahalmenei buruzko erantzukizunak eta jokabideak. Ertzaintzari dagokionean gauza bera egin behar da, eta, beraz, ez da egoki erantzukizunak eskatzea eta aldi berean Guardia Zibila edo Polizia Nazionala toki jakin batzutatik ez direla kenduko baieztatzea. Nere ustez arras argi hitz egin behar dugu batzuk eta besteek, eta nire gaur goizeko jokaerak arazoaren xehetasun guztiak mahai gainean jartzeko xedea zuen, denok esanak atzera zuzen ditzagun -zilegi bekit esatemodua- hala behar izanez gero.

Gaur goizean behin eta berriz hitz egin dut halaber politika-indar demokraziadunen bateango ahaleginari bide emateaz. Zuri agian aproposena edo egokiena irudituko ez zaizun egitura bat ere aipatu dut, hots, Giza Eskubideen Batzordea. Egitura hori izan edo beste bat izan, ideiaren funtsa ber-bera da. Izan ere, nere ustez demokrazia-indar guztien etengabeko elkarrizketa piztu behar da. Nere ustez elkarrizketetarako tokia nagusiki Legebiltzarra edo bertako edozein areto da, bertan talde batek, "ad hoc" edo nahi bezala deituriko batzorde bat ihardun dezalarik, eta etorriko ahal dira bertara halaber herri honetako ordezkotzarik izanik ere gaur egunean Legebiltzarrera etorri nahi ez dutenek. Egongo ahal gara guztiok bertan! Bainan, etor ez daitezen bitartean, gaur goizean argi eta garbi esan dudanez, indar dezagun etxe honetara etorri ohi diren demokrazia-talde guztien elkarrizketarako egitura.

Ez nator zurekin guztiz bat, Benegas jauna, ETAren jokabideak ez ezik bere helburuak ere gaitzetsi behar direna diozunean. Entzun, bada, eta ez dut inor ikaratu nahi Legebiltzar honetan: ETAren eta bere jarraikarien gaitzesten baditut ere, demokraziaren ikuspegitik haiek bultzatzen duten moduko helbururik ez dut zergatik baztertu behar, baldin eta helburu horiei atxikirik demokraziaren hildoetara bideratu eta demokrazia-erakundeetan garbi jokatzen bada. Hori nioen gaur goizean aldi berean legezko aukera orok, legezko ideologia orok, eskubide osoz demokraziaren eremuan jardun ahal izatea zor zaiola es-

parecer en el marco democrático con pleno derecho.

Quizá no le he entendido a usted bien, pero me ha parecido entenderle eso, y yo creo que hay que condenar con rotundidad los métodos, los procedimientos, la violencia, y que precisamente para armarnos de autoridad democrática tenemos que ser muy valientes, para invitar a comparecer en los foros democráticos a quienes defienden por esos procedimientos metas políticas de las que hay que comprobar el grado de apoyo popular que tienen. Y ésa es la sentencia definitiva que tienen las metas políticas de cualquier grupo: el respaldo popular comprobado, contrastado y previamente defendido en un Parlamento democrático.

Finalmente usted ha dicho, si no me equivoco, una constatación. Dice: "No basta el aislamiento social". No sé si he anotado correctamente; usted dice: "HB existe porque existe ETA". Es algo de lo que hemos hablado antes de ahora y en lo que usted sabe que estoy bastante en desacuerdo. Yo me temo... O incluso retiro la palabra "me temo": yo estoy seguro de que habrá un espacio para la radicalidad que hoy puede representar Herri Batasuna en este país, muy probablemente, con ETA o sin ETA. Es más, yo he dicho esta mañana, adrede, y especialmente si no progresan las vías hacia el autogobierno y no hay una respuesta a las reivindicaciones legítimas mayoritarias de este pueblo, en demanda de un autogobierno digno, que se alimentará ese vivero de radicalidad, que cristalizará en Herri Batasuna o en lo que sea, exista ETA o no exista ETA.

Pero éstas son elucubraciones, y de lo que sí estoy absolutamente, firmemente persuadido, señor Benegas, es de la necesidad de deslegitimar la actuación de estos grupos, desmintiendo rotundamente esas afirmaciones en las que se dice que aquí nada ha cambiado, que el proceso democrático es una farsa y que las vías hacia el autogobierno son un montaje, como he dicho en alguna ocasión, de cartón-piedra. Ahí es donde tenemos que dar la batalla y ahí es donde tenemos que convencer a ese sector social, que no desaparecerá de la noche a la mañana, que probablemente además tendrá su espacio político siempre, pero que hoy puede estar especialmente estimulado, alimentado en su existencia por el incierto desarrollo del autogobierno en los últimos tiempos.

katzen nuelarik.

Ez dizut ongi ulertu agian, bainan hori zenioelakoan nago, eta nere ustez gogor salatu behar dira jokabideak, jarduerak, indarkeria, eta adore osoz jokatu behar dugu demokrazia-agintearen jabe egin gaitezen, hain zuzen ere, jarduera horien bitartezko politika-helburuak aldezten dituztenei demokrazia-erakundeetara etortzeko gomita egiteko, helburu hauek daukaten herri-babesa zenbaitetarainokoa den aztertu behar delarik. Eta hori da edozein talderen politika-helburuek duten azken epaia: egiaztatutako, erkatutako eta aldez aurretik demokraziazko Legebiltzarrean aldeztutako herri-babesa.

Azkenik, oker ez banago, oharrarazpen bat egin duzu. Honela diozu: "Gizartetik baztertzearekin ez da aski". Ez dakit zuzen jaso dudan; zuk diozu: "ETA bizirik egoteak dakar HBren izatea". Lehen ere hitz egin dugu horretaz eta badakizu ez natorrela guztiz bat. Beldur naiz... areago, beldur izan ez, bainan ziur nago amore gaiztasunak, eta gaur egun bere ordezkari Herri Batasuna dateke, bere tokia izango duela nahiz ETA egon nahiz ez egon, seguraski. Are gehiago, nahita esan dut gaur goizean, eta bereziki burujabetzaranzko bideei aurrera eragiten ez bazaie eta herri honek duintasunezko burujabetza eskatzerakoan bertako gehiengoaren legezko eskabideei erantzunik ematen ez bazaie, amore gaiztasunaren sorburu hori piztu egingo dela, Herri Batasunean edo nonnahi gauzatuko delarik, nahiz ETA egon nahiz ez egon.

Bainan horrela han-hemenka gabiltza; ni guztiz eta irmoki jabetuta nago, Benegas jauna, talde hauen jokabidea legez kanpo uztearen beharraz, honelako esaerak, hots, hemen ez dela ezertxo ere aldatu, demokrazia-aurrerabidea trikimailua dela eta burujabetzaranzko bideak, beste noizbait ere esan dudanez, harri-kartoizko egitura direla, horiek erabat gezurtatu behar direlarik. Arlo horretan ekin behar dugu gizarte alor hori geureganatuz, berau ez bait da gauetik goizera desagertuko, gainera seguraski beti izango bait du bere politika-eremua, baina gaur egun azken aldi honetan autonomia-garapena zalantzazkoa izanik zeregin berezia izan dezakeena.

Luego hablaremos del desarrollo autonómico, al que usted se ha referido en último lugar. Antes ha hablado usted del plan económico. Yo no voy a repetir consideraciones que he hecho esta mañana a lo largo de 27 largos folios, o veintitantos largos folios, con los que ya he aburrido suficientemente a nuestras señorías. Algunas de las cosas que he dicho esta mañana, de todas formas, tendría que repetirlas para mostrar mi disconformidad con alguna de las disconformidades que a su vez usted ha citado.

Desde luego, respecto a estos datos positivos de que nosotros hemos hablado, que hemos dado sobre la evolución del país -relativamente positivos, porque yo he insistido hasta la saciedaden que no podemos permitirnos optimismos en un país con 165.000 parados y con operaciones pendientes como la reconversión, etcétera, etcétera-, mire usted, yo tengo aquí por ejemplo unas notas que amablemente me han cedido por ahí, escritas por el autor del "Estudio sobre la Renta Nacional", pluma bastante autorizada y autor de una publicación que me atrevo a calificar de semioficial, en las que se dicen cosas importantes.

Por ejemplo, dice: "Entre 1977 y 1979, en cambio, se aprecia un rápido y espectacular hundimiento de los principales indicadores de la producción" -refiriéndose a nuestra Comunidad, cosa que yo he dicho esta mañana-. "Finalmente, entre 1979 y 81 esos indicadores -producción industrial, producto interior bruto, productividad industrial, renta per cápita, etcétera- muestran un esperanzador cambio de tendencia desde los bajos niveles alcanzados en la caída del periodo anterior, que contrasta con la persistencia de la caída de los mismos indicadores para el conjunto de España. Guipúzcoa y Alava se comportan mucho mejor y resisten favorablemente la comparación con otras regiones", dice a continuación. "Baste como indicador aproximado señalar que Alava ocupa el cuarto lugar en 1981..." etcétera, etcétera, etcétera. "Son indicadores" -dice- "de la existencia de un enorme potencial de transformación económica en el país, dado principalmente por la formación y capacidad de asimilación tecnológica de la mano de obra. Desde un punto de vista puramente económico hay, por ello, motivos más que sobrados para pensar que la economía del País Vasco está objetivamente en condiciones de aceptar el reto de la adaptación a las nuevas tecnologías que tiene enfrente, por difíciles que éstas sean..."

Gero hitz egingo dugu autonomiagarapenaz, zuk azkenik aipatutakoa. Aurretik ekonomia-egitasmoaz hitz egin duzu. Ez ditut berriz aditzera emango gaur goizean 27 orritan zehar, edo hogeitaka orritan zehar zabalkiro emandako gogoetak, haiekin aski aspertu bait zaituztet dagoeneko. Dena den, errepikatu egin beharko nuke haietariko hainbat, zeuk aipatutako irizkidetasunik ezekin, hauelako zenbaitekin ez natorrela bat azaltzeko.

Izan ere, guk herriaren aurrerabideaz emandako datu baikor horiei buruz -bataz beste baikorrak, behin eta berriz esan bait dut herri honetan 165.000 langabetu eta birrantolaketa eta horrelako hainbat eginkizun dauzkagularik ez dugula baikortasunarentzat lekurik- begira, esate baterako, norbaitek adikortasunez eman dizkidan ohar batzu dauzkat, "Estudio sobre Renta Nacional" delakoaren egileak idatzitakoak, egile itzaltsua eta ausardiz erdiofizial deituko niokeen argitalpen baten egile, bertan gauza garrantzitsuak esaten bait dira.

Zera esaten da, adibidez: "1977 eta 1979 bitartean, halabaina, ekoizpenaren erakusgarri nagusien beherakada bizkor eta nabarmena ikusten da" -gure Elkarteari dagokiola, gaur goizean nik ere gauza bera esan dudalarik-. "Azkenik 1979 eta 1981 bitartean erakusgarri horiek -industriaemaitza, barne ekoizpenaren guztizkoa, industria-ekoizkortasuna, norbanakoen irabazia, etabar- aurreko aldian jotako maila apalei begira joera-aldaketa itxaropentsua azaltzen dute, aldi berean aitzitik Espainia mailan erakusgarri horiek beheraka dirautela. Gipuzkoa eta Araba askoz ere hobe dabiltza eta ongi eusten diote beste eskualdeekiko alderaketari, dio jarraian. "Aski bedi gutxi gora beherako erakusgarri gisa Araba 1981.ean laugarren postuan dagoela..." etabar, etabar, etabar. "Euskal Herrian ekonomia-aldakuntzarako ahalmen izugarria dagoela erakusten dute -honela dio-, eskulanaren gaitasuna eta teknolojia beretzakotzeko trebetasuna direla eta batez ere. Ekonomia-ikuspegi hutsetik, beraz, hori horrela, Euskal Herriko ekonomia aurren dituen teknologia berriak, hauen zailtasuna dena dela, beretzakotzeko benetan gai dela lasaiki pentsa daiteke..."

Y dice un montón de cosas más que en este momento me resulta un poco difícil extrapolar sin aburrir a sus señorías pero que, en definitiva, coinciden con las tímidas muestras de optimismo que yo he dado con toda suerte de salvedades, basadas en datos objetivos. Señor Benegas, el producto interior bruto ha sido negativo, ya lo creo. En el primer bienio, en el bienio que precedió a nuestra asunción de responsabilidades de Gobierno, cayó un 11 por ciento. Pero lo significativo para mí no es eso, por lo menos en la exposición que yo lógicamente hacía esta mañana. Lo significativo es que frente a ese dato, en el año 82, el PIB ha crecido el 1,5 por ciento, y en el año 83, con una incidencia del desastre de las inundaciones que puede evaluarse en un 2 por ciento, ha crecido un 0,5 por ciento, frente a un 11 por ciento de caída en el bienio que precedió a nuestra llegada al poder.

Eta beste gauza piloa ere esaten duenaren arren, zail samarra gertatzen zait une honetan hauek bertatik ateratzea zuek aspertu gabe, hala eta guztiz ere, azken batetan, bat datoz nik datu objetibotan oinarrituta lotsorrez eman ditudan baikortasun-agerkiekin. Benegas jauna, barne ekoizpenaren guztizkoa. Benegas jauna, barne ekoizpenaren guztizkoa beharanzkoa izan da, bai horixe. Lehenengo bi urtekoan, gu geure jaurlaritza-erantzukizunen jabe egin aurreko bi urtekoan, ehuneko 11 jaitsi zen. Bainan nere ustez ez da hori garrantzitsua, nik gaur goizean egindako aurkezpenean behintzat. Hona garrantzitsua: datu hori horrela izanik ere, 82. urtean, BEG (PIB) ehuneko 1'5 hazi da, eta 83. urtean, uholdeen ondamendiaren eraginpean, ehuneko 2-ren balioa eman dakiokeela, ehuneko 0,5 hazi da, gu agintearen jabe egin aurreko bi urteetan ehuneko 11 jaitsi zelarik.

Y lo mismo podría decir en relación con el problema del aumento del paro. Yo he dicho esta mañana que en el año 80, efectivamente, 27.800 parados más; en el año 81, 30.000 parados más; en el año 83, decía 4.000. Entonces, cuando ustedes señalan ese aumento de no recuerdo si ha dicho 90.000 parados, claro, hay que explicar la historia completa, porque yo, que estoy rindiendo en cierto modo cuentas de las actuaciones desde que hemos asumido responsabilidades de autogobierno, tengo que subrayar que, de esos 90, a ritmo de 30.000, se estaban produciendo los aumentos de parados en los años que precedían y que coincidían con el inicio de nuestro Gobierno, y no a partir de las actuaciones que como Gobierno vasco hemos podido llevar a efecto, particularmente después del año 82.

Eta gauza bera esan nezake langabezia gehitzearen arazoari buruz. Esan dut gaur goizean, baietz, 80.ean 27.800 langabetu gehiago; 81.ean, 30.000 langabetu gehiago; 83.ean 4.000, esan dut. Orduan, zuek, oker ez banago, 90.000 langabetu gehiago dagoela diozuenean, jakina, dena esan beharra dago, ze, nolabait burujabetza-erantzukizunen jabe egin garenetiko kontuak ematen ari naizenez, azpimarratu behar bait dut, 90 horiei dagokienez, urteko 30.000 langabetu gehiago gertatzen zela gure Jaurlaritzaren sorrera garaiko eta lehenagoko urteetan, eta ez eusko Jaurlaritza gisa egiteratu ahal izan ditugun ekintzez geroztik, 82.etik aurrera bereziki.

No voy a aburrirles a ustedes con estos datos, insisto, que, más que por espíritu de contradicción al señor portavoz socialista, yo tengo que repetir aquí por lo que he dicho esta mañana: no podemos estar tampoco predicando el pesimismo hasta llevar a un abatimiento absoluto a nuestro pueblo. LLevamos 10 años de abatimiento, y tan irresponsable es predicar falsos optimismos como poco recomendable puede resultar que tomemos los datos para explicarlos con tintes todavía más pesimistas, más tenebrosos de los que ya ofrecen de por sí.

Ez zaituztet gehiago aspertuko datu hauez, eta, akio egiten dut, sozialisten taldeburu jaunari aurka egiteko gogoa baino areago, gaur goizean esan dudanagatik errepikatu behar bait ditut hemen: ez gaitezke ari halaber etsipena zabaltzen gure herri erabateko ahulezira eramateraino. 10 urte daramagu ahulezian, eta baikortasun faltsuak zabaltzea arduragabekeria bada, ez da gomendagarri halaber datuak, berez ematen dizkigutenak baino are iruzur ezezkor eta goibelagoz adierazteko hartzea.

En relación con la reconversión, señor Benegas, yo creo que nuestro Consejero de Industria, el Gobierno en general, están ofreciendo una actitud bien dialogante, bien abierta a sus correspondientes del

Birrantolaketari dagokionez, Benegas jauna, nere ustez Industriako Sailburua, Jaurlaritza orohar, jokabide aski zabala eta solaskidekoia eskeintzen ari direlakoan nago Jaurlaritza espainiarraren ordezkarien

Gobierno español. Nuestro Departamento de Industria tiene estudiados todos esos subsectores de la industria vasca a los que usted se ha referido. Y, es más, si no me equivoco, tengo entendido que ha habido una reunión en los dos o tres últimos días con representantes del Gobierno del Estado, una vez más, para estudiar estos problemas. No quiero sacar aquí agravios, pero tendría que decir que no ha habido la misma correspondencia siempre, cuando, por ejemplo, se nos ha excluido, y se nos ha excluido incluso ilegalmente, de las comisiones encargadas de planear la reconversión industrial, fallo que yo espero que se subsane a nivel de Gobierno central.

Pero yo en esto, aparte de puntualizar estos pequeños extremos, aparte de dejar muy claro -porque podría entenderse lo contrario de su intervención, señor Benegas-, aparte de dejar muy claro que esos subsectores están estudiados, que estamos tratando con sus representantes, que estamos con planes bien maduros, que queremos tratar con el Gobierno del Estado y que ya han sido tratados con el Gobierno del Estado, aunque no exhaustivamente, yo quiero ratificar lo ue he dicho esta mañana: con competencias o sin ellas; más claro, sin que tengamos ni el crédito oficial ni los fondos de empleo, ni los de garantía salarial, ni la Seguridad Social hoy por hoy -espero que sí mañana-, con todos los recursos marginales que las Administraciones públicas vascas -el Gobierno vasco y las propias diputaciones-pueden allegar, nosotros vamos a concurrir, con todos los costes políticos de impopularidad y con toda la responsabilidad necesaria, a esta operación de reconversión que queremos estudiar en beneficio de nuestro pueblo, superando otros antagonismos y deferencias, lealmente, con el Gobierno del Estado.

El desarrollo autonómico es la otra gran cuestión en la que me alegra que coincidamos en la necesidad de un diálogo a fondo y de un intento de desbloqueo que es ciertamente urgente. Usted ha dicho, y tiene razón, que normalmente la culpa no es de uno cuando un asunto está bloqueado. Yo esta mañana ya he dicho que evidentemente nosotros también podemos tener algunas culpas, pero que, de 72 materias -¡hombre!, alguna se hubiera podido mover-, pues ahí sí que no era capaz yo de asumir esa responsabilidad, e incluso sacaba un argumento quizá no muy airoso, pero el argumento de que somos los mismos que antes sí movimos con otros Gobiernos otras competencias. De 72 algunas, señor Benegas, por favor, sí. Y yo creo que, de 72,

aurrean. Gure Industria-Sailak aztertuta dauzka zuk aipatutako euskal industriaren menpeko alor guzti horiek. Areago oraindik, oker ez banago, bilera bat egin dute Estatuko Jaurlaritzaren ordezkariekin herenegun edo herenegun aurretik, berriro ere, arazo hauek aztertzeko. Ez dut hemen irainik egin nahi, baina esan beharko nuke ez dela beti egokitasun bera jaso, adibidez industria-birrantolaketa egitamutzeko ardura duten batzordeetatik, baita legez kontra ere, kanpo utzi bait gaituzte, eta estatuko Jaurlaritzak akats hori zuzenduko duelakoan nago.

Bainan honi nagokiola, ohar txiki hauek egiteaz gain, menpeko alor horiek aztertuta daudena argi eta garbi uzteaz gain -zure mintzaldiari, jarrai ez bait litzateke horrela, Benegas jauna-, ordezkariekin harremanetan gaudena, eta Estatuko Jaurlaritzarekin aztertu nahi ditugun eta zehatz-mehatz ez bada ere, jadanik aztertutako egitasmo garatuak dituguna argi eta garbi uzteaz gain, nik gaur goizean esandakoa egiaztatu nahi dut: aginteen jabe izan ala ez; argiago esanik, ez mailegu ofizialaren, ez lanbide-dirubaltzaren, ez soldaten berme-baltzaren, ezta gaur behintzat -biharko baiezkoa espero badut ere- Gizarte-Segurantzaren jabe ez garelarik, euskal herri-Administrazioek -eusko Jaurlaritzak eta diputazio berek-urrera beregana ahal ditzaten bazterreko eskuarte guztiez baliatuz, guk eskuhartu egingo dugu, politikaren aldetik herriaren iguina jasotzeko arrisku eta guzti eta behar den arduraz, gure herriaren onerako aztertu nahi dugun birrantolaketa egiteko honetan, Estatuko Jaurlaritzarekin ditugun beste hainbat aurkakotasun eta alde gainditu z.

Autonomia-garapena da beste arazo nagusia, eta pozten naiz honi buruz bat bait gatoz elkarrizketa sakonaren beharrari eta benetan premiazko den herstura hausten saiatzeari dagokionez. Zuk esan duzu, eta arrazoia duzu, arazo batek bideak itxita edukitzea ez dela soilik baten erruz gertatu ohi. Esan dut gaur goizean guk ere, argi dagoenez, izan dezakegula hainbat erru, bainan, 72 alorretatik bat edo beste mugi zitekeen, zitekeela, gizona!, eta honi buruz ezin nuen inolaz ere ardura hori neregan hartu, eta oso argudio iaioa ez bada ere, lehen beste Jaurlaritza batzu zeudenean hainbat alor mugitu egin genuela orain ere dihardugun ber-berok. 72tik batzu bai, arren, Benegas jauna. Eta nere ustez, 72tik, erabakiaren zai dauden fun-

ocho o nueve cuestiones fundamentales que están listas para sentencia, yo creo que sí, que es posible y, como decía esta mañana, depende de la voluntad política de ambas partes, pero fundamentalmente de quien tiene la sartén del mango, si se me permite la expresión.

Porque el Insalud fue transferido a Cataluña, por cierto, por el Gobierno anterior, pero el Insalud tiene su especificidad, como toda la cuestión de la Seguridad Social, en el Estatuto vasco. Entonces, punto número uno: nosotros tenemos que defender esa especificidad del convenio. Eso consiste en algo; eso no consiste en una transferencia como la que en su día pudo asumir Cataluña, y no voy a entrar yo además en juicios sobre los arrepentimientos que pudo tener Cataluña de haber asumido o no el Insalud en unas determinadas condiciones. Esa es otra historia. Que Cataluña, en esto y en algunas otras materias que usted ha citado, no haya mantenido nuestras mismas posiciones, quiero pensar que se debe a la especificidad que contiene nuestro Estatuto, que nosotros tenemos la obligación de defender, o quizá a otras contrapartidas, no sé si en especie o en lo que sea, que cada cual es responsable de negociar y que, desde luego, en nuestro caso no han existido ni hemos atisbado siquiera con interés suficiente como para justificar transacciones que para nosotros habrían sido un mal servicio a este país.

